

Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gradua

Gradu Bukaerako Lana

**Etxarrin mugituz,
herria ezagutuz,
toponimia zainduz.**

Ikaslea: Aimar Araña Marchueta

Tutorea: Gerizpe Iraola Azanza
Saila: Osasun Zientzien Saila

Arloa: Hezkuntza

2023ko Maiatza

LABURPENA

Lan honetan Ikaskuntza Zerbitzua metodologia berritzailea aurkeztearekin batera, hau erabiltzeko eman beharreko urratsak eta kontuan hartu beharreko ezaugarriak eskaintzen dira. Hori ez ezik, jazarpenaren aurkako KiVa programaren nondik norakoak eta esku hartzeak nola egin behar diren ere azaltzen da. Bestalde, Lehen Hezkuntzako ikasleekin aurrera eramateko Ikaskuntza Zerbitzua metodologian oinarritutako proposamen didaktiko aktibo bat ere proposatzen da. Honi dagokionez, gizarteari eskainiko zaizkion onurak, batik bat, herriaren ondarea bizirik mantentzea, ikasleen egoera fisikoa hobetzea eta gazteen arteko harreman osasuntsuen sorrera izango dira.

Aurkibidean ikusten den bezala, lana atal ezberdinetan banatu dut; hasteko, proposamen didaktikoa aurrera eramateko hautatu dudana metodologia, Ikaskuntza Zerbitzua, alegia; aurkeztu dut. Honen inguruan informazio asko dagoen arren, nik soilik ezinbesteko ezaugarriak jarri ditut; izan ere, garrantzia handiagoa eman diot sortutako proposamen didaktikoari datu teorikoei baino. Hala eta guztiz ere, marko teorikoa irakurrita Ikaskuntza Zerbitzua eta KiVa ondo ezagutzen direlakoan nago. Ondoren, Proposamen Didaktikoan bete-betean sartuta, lehenik eta behin hori aurrera eramateko testuingurua zein den aurkeztu dut, lanaren nondik norakoak ezagutzeko ezinbestekoa baita; jarraian, honen saioak eta ibilbide ezberdinak proposatu ditudalarik. Dena den, azpimarratu nahiko nuke, proposamen didaktikoa irekia eta malgua dela; hortaz, aurrera eramaten duen orok bere eran egin dezakeela.

Hitz gakoak: ikaskuntza-zerbitzua; KiVa; jarduera fisikoa; Lehen Hezkuntza; toponimia

RESUMEN

En este trabajo además de presentar la innovadora metodología llamada servicio de aprendizaje, se dan a conocer los diferentes pasos y las características a tener en cuenta para saber como utilizarla en el aula. Por si eso fuera poco, se presenta el programa finlandés contra el bullying KiVa. Además, se dan a conocer los detalles de la propuesta didáctica activa que se ha creado para llevarla adelante en las horas de Educación Física con alumnos de primaria basado en el servicio de aprendizaje. Dicha propuesta tiene como objetivos principales mantener el patrimonio del pueblo, mejorar la condición física de los alumnos y trabajar en sus relaciones sociales mediante KiVa.

Tal y como se ve en el índice, he dividido el trabajo en diferentes partes. Primero de todo he presentado el marco teórico, donde se dan a conocer, entre otras cosas, las

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

diferentes características de la metodología que he usado en la propuesta didáctica, esto es, el servicio de aprendizaje. A pesar de la multitud de información que hay sobre el tema, he decidido presentar solo lo más relevante; ya que, en mi opinión, es más importante la propuesta didáctica que la teoría. Aun sabiendo de que no he puesto toda la información sobre la metodología, creo que con lo escrito en el marco teórico es más que suficiente para conocer tanto el servicio de aprendizaje como el programa KiVa. A continuación, metidos de lleno en la propuesta didáctica, he empezado por el contexto de la zona en la que se llevará a cabo dicho trabajo; puesto que es esencial saber las características del entorno a la hora de hacer una actividad práctica; para después presentar las diferentes sesiones y variados recorridos que he creado. Finalmente, creo que es necesario saber que la propuesta es muy variada y está abierta a cambios, es por ello que cada profesor o profesora puede llevarla a su terreno y hacer las modificaciones que crea convenientes a la hora de usarla.

Palabras clave: aprendizaje-servicio; KiVa; actividad física; Educación Primaria; toponimia

ABSTRACT

Together with the presentation of the innovative methodology of the Learning Service, this paper offers the steps to follow for its use and the characteristics to be taken into account. In addition to this, it explains how to do the interventions and details of the KiVa anti-bullying program. On the other hand, it also proposes an active didactic proposal based on the Learning Service methodology to carry out with primary school students. In this sense, it has been designed primarily to keep alive the heritage of the village, improve the physical condition of pupils and improve healthy relationships among young people.

As you can see in the index, I have divided the work into different sections, starting with the methodology I have chosen to carry out the didactic proposal, the Learning Service. Although there is a lot of information about it, I have only given some essential characteristics, since I have given more importance to the didactic proposal created than to the theoretical data. However, I think that by reading the theoretical framework, the Learning Service and KiVa are well understood. Then, entering fully into the Didactic Proposal, the first thing I have done is to present what is the context to carry it out, essential to know the intricacies of the work; then, I have proposed the different sessions and itineraries of this one. However, I would like to stress that the teaching proposal is open and flexible, so anyone who carries it out can do it in their own way.

Key words: service-learning; KiVa; physical activity; Primary Education; toponymy;

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
2. JUSTIFIKAZIOA.....	5
3. HELBURUAK.....	7
4. MARKO TEORIKOA.....	8
4.1. Ikaskuntza Zerbitzua.....	8
4.1.1. Hezkuntza.....	8
4.1.2. Definizioa.....	9
4.1.3. Ikaskuntza zerbitzuaren aldeko arrazoiak.....	10
4.1.4. Oinarrizko edukiak.....	11
4.1.5. Ezaugarriak.....	12
4.1.6. Ikaskuntza zerbitzuaren faseak eta etapak.....	13
4.1.7. Ikaskuntza zerbitzuaren dinamismoak.....	15
4.1.8. Ikaskuntza eta zerbitzua: Koadranteak.....	17
4.1.9. Ikasleen parte hartzea.....	18
4.1.10. Nondik hasi?.....	19
4.1.11. Proiektuaren plangintza.....	20
4.1.12. Ospakizuna.....	20
5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	21
5.1. Sarrera.....	21
5.2. Justifikazioa.....	22
5.3. Testuingurua.....	23
5.3.1. Etxarri Aranatz.....	23
5.3.2. Andra Mari Ikastolaren testuingurua.....	24
5.3.2.1. Baliabideak.....	24
5.4. Proposamen didaktikoaren aurretik landu beharrekoak: Toponimia.....	26
5.4.1. Toponimoen informazioa.....	27
5.4.2. Etxarrieraren ezaugarriak.....	27
5.5. Proposamen didaktikoa eta curriculum.....	28
5.6. Metodologia.....	29
5.6.1. Sara Ashworth eta Muska Mosston autoreen sailkapena.....	29
5.6.2. Taldekatzeak.....	31
5.6.3. KiVa.....	33
5.6.4. Aniztasunari arreta.....	35
5.7. Denboralizazioa.....	35
5.8. Toponimoen proposamen didaktikoaren faseak.....	36
5.8.1. Aurrekaria.....	37
5.8.2. Diagnostikoa eta planifikazioa.....	37
5.8.3. Proiektuaren gauzatzea.....	38
5.8.4. Ebaluazioa eta sistematizazio finala.....	38
5.9. Saioak.....	43
5.9.1. 0. Saioa.....	44
5.9.2. 1. Saioa.....	45
5.9.3. 2. Saioa.....	46

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

5.9.4. Ondorengo saioak.....	47
5.9.5. Amaierako proiektua-Herriari eskaintza.....	47
5.10. Ospakizuna.....	49
6. ONDORIOAK.....	50
GALDERA IREKIAK.....	52
BIBLIOGRAFIA.....	54
ERANSKINAK.....	57
Ibilbideak.....	57
1. Ibilbidea:.....	58
2. Ibilbidea:.....	62
3. Ibilbidea:.....	71
4. Ibilbidea:.....	74
5. Ibilbidea:.....	78
6. Ibilbidea:.....	80
7. Ibilbidea:.....	81
8. Ibilbidea:.....	83

1. SARRERA

Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduari amaiera emateko egingo dudan Gradu Bukaera Lan honetan nire bi zaletasun nagusiak elkartzea erabaki dut, jarduera fisikoa eta hezkuntza, hain zuzen ere. Bien arteko harremana eraikiko duen zubia ikaskuntza zerbitzua metodologia izanik, etxarriko toponimia ezagutarazteko eta herriari honen biziraupena ziurtatzeko proposamen didaktikoa aurkituko duzuelarik. Hortaz, bi fase nagusitan bereiziko da lana; hasteko, ikasleekin landuko dena, eta, ondoren, hauek herriari eskainiko dioten onura.

Hori ez ezik, metodologia honek hezkuntza eredu tradizional zaharkituak gainditzen ditu; gutxinaka-gutxinaka ikaskuntza esanguratsua irakaskuntza berritzaileen bitartez lortuz. Marko teorikoan sakonago aurkeztuko dudan arren, sarrera gisa esango dut Ikaskuntza Zerbitzua ikasle gaztetxoekin lantzeko metodologia oso aproposa dela, curriculuma garatzeaz gain, hemendik at dauden hamaika abantaila eskaintzen dituelako; hala nola, ikastetxearekiko atxikimendu sentimendua, lanerako motibazioa edota familien parte hartzearen handitzea, besteak beste.

Hautatutako gaiari dagokionez, nire herriko, hots, Etxarri Aranazko toponimia lantzeko proposamen didaktikoa sortu dut; indarberritu nahi dudan zerbait izateaz gain, biziraun behar duen altxorra delako. Helburu hau erdiesteko, ikasleekin jarduera fisiko ezberdinei esker burutuko ditugun ibilbide ezberdinak diseinatu ditut; horietan zehar herriko leku izen anitzak ezagutuko dituztelarik. Dena den, argi utzi nahi dut, kalera irten baino lehen, talde txikiko lanketari esker toponimo hauen ezaugarriak, osagaiak edota adierazpenak landuko ditugula.

Behin ikasgelako lana egin eta gero, herriari eskaintza egiteko unea iritsiko da. Helburu hau erdiesteko, eskaintza anitzak egingo dira, hala nola, toponimoan interesa duen edonorentzat prestatutako ibilaldiak, mapa toponimikoak edota leku izenen aurkezpenak.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gradu Bukaerako Lanaren gai nagusia Gorputz Hezkuntzako proposamen didaktikoen diseinu eta garapena da; izan ere, interesgarria iruditzeaz gain, nire zaletasunen alderdira eramateko aukera eskaintzen du, irakasgai honetan lan daitezkeen edukiak eta

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

metodologiak ugariak direlako. Hau horrela izanik, Lehen Hezkuntzako ikasleekin nire herriko, hots, Etxarri Aranazko, toponimoak ezagutzeko proposamen didaktikoa sortu dut.

Honetaz gain, Ikaskuntza Zerbitzua metodologia berritzailearen erabilera posibleak ere garrantzia handia izan du gaiaren nondik norakoak pentsatzearen momentuan. Metodologia hau asko gustatzen zait eta gutxinaka-gutxinaka ikastetxe ezberdinetan txertatzearen aldeko apostua egin beharko genukeelakoan nago. Marko teorikoan honen erabileraren aldeko argudioak emango ditudan arren, herriari lana eskaintzerakoan ikasleek daukaten motibazioa, talde lana eta ikastetxearekiko pertenezia sentimendua nabarmendu nahiko nituzke Ikaskuntza Zerbitzuaren indargune gisa.

Proposamen didaktikorako hautatutako metodologia eta gaia erlazionatuz, herriari bere toponimoen biziraupena ziurtatzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko eginiko lana da hau. Izan ere, egungo gizartean horren hedatua dagoen bizi ohitura sedentarioarekin amaitzeko eta nire herriko ondarea mantentzeko beharra somatzen dut. Lehenengo arazoaren konponbidearen teoria guztiok dakigun arren, hots, jarduera fisiko gehiago egitea; oso zaila suertatzen zaigu ikasleak hontara bideratzera eta euren denbora librean kirola egin dezaten animatzera; hortaz, egoera iraultzeko, asko motibatuko dituen lanaren bitartez mugimendura bideratuko ditugu gaztetxoak. Azken finean, Sakanan gure bailarekiko eta bertako herri txikiak atxikimendua daukagunez, erraza suertatuko da ikasleak gure leku izenen biziraupenaren arduradun sentiaraztea eta hortarako motibatzea. Hau horrela izanik, toponimoek ezagutzeko burutuko ditugun ibilbideetarako ikasleen jarrera bikaina izango dela baieztatuko nuke, lekualdatze aktiboak sustatuz eta jarduera fisiko ezberdinak ezagutuz.

Hori ez ezik, KiVa metodologia finlandiarra lanaren ardatz nagusietako bat ere badela argi dago, ikasleen arteko harreman osasuntsuak sustatzearekin batera, talde lanaren aldeko apostu garbia egiten delako proposamen didaktiko osoan zehar. KiVa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza burutzen ari nintzela ezagutu nuen, Andra Mari Ikastolan, Proposamen Didaktikoa aurrera eramango den ikastetxean, alegia; eta hasierako unetik oso interesgarria suertatu zitzaidan. Gainera, burutu berri ditudan Eskola Praktika 2 eta 3 ak ere leku berdinean egin ditudanez, metodologia hau hobe ezagutzeko aukera izan dut; hortaz, eskuratutako informazio guztia nire GBLan erabiliko dut; hala nola, zein fase dituen, esku hartzeak nola burutzen diren edota KiVa saioak nola lantzen diren.

Laburbilduz, ni etxarriarra eta kirolaria izanik, nire herriari bere ondarearen biziraupena eta herritarren alderdi guztietako bizi kalitate osasuntsua ziurtatzeko diseinatu dut proposamen didaktiko hau; horretarako, hezkuntza tradizionalarekin hausten duen Ikaskuntza Zerbitzua metodologia eta KiVa programa oinarri hartu ditudalarik.

3. HELBURUAK

Etxarri Aranazko toponimoak ezagutzeko proposamen didaktiko hau helburu ezberdin anitz erdiesteko sortu dut; dena den, hauen artean hierarkizazio bat ezarri eta gero, nagusia herriko toponimoaren lanketa eta herriari honen biziraupena eskaintza egitea litzateke; eta gainontzeko guztiak, aldiz, bigarren maila batean lortuko liratekeenak. Izan ere, ikaskuntza zerbitzua metodologia erabiltzen den heinean, ezinbestekoa da herriari onurak eskaintzea.

Helburu nagusiei dagokienez, arestian esan bezala, ikaskuntza zerbitzua metodologia erabiliko denez, herriari, kasu honetan Etxarri Aranatzi, aurrerako urratsak eskaintzea litzateke; bertako leku izenak ezagutzea eta hauen biziraupena ziurtatzea, hain zuzen ere. Hau erdiesteko, proposamen didaktiko batean oinarrituko da txostena. Horretarako, bi fase nagusitan banatuko da lana; alde batetik, ikasgela barruko lan teorikoa, zeinetan toponimoen informazio ezberdina taldeka bilatuko duten; eta, beste aldetik, naturan burutuko diren ibilbideak. Bigarren fase honetan iritsiko da toponimoen kokapenaren lanketa eta ondoren herriari eskainiko zaizkion ibilaldi toponimikoak ere; hori gutxi balitz, leku izen bakoitza non kokatzen den ikasi eta gero, informazio guzti hau bilduko duen mapa toponimiko bat sortuko dute ikasleek; ondoren herriko udalari eskaintzeko. Hortaz, argi dago bi helburu nagusiak zeintzuk diren, alde batetik, toponimia ezagutzea, eta, beste aldetik, ikasitako guztia erabiliz leku izenen biziraupena ziurtatzeko herriari baliabideak eskaintzea; kasu honetan, ibilaldi eta mapa toponimikoak.

Gainera, ezinbesteko helburuak lantzearekin batera, bigarren mailako helburua den egoera fisikoaren hobekuntza ere garatuko da. Izan ere, irteera anitzak burutuz herriko leku izenak non dauden ikustearekin batera, lekualdatze aktiboek esker erresistentzia garatuko dute. Ildo beretik jarraituz, toponimoak aztertzearekin batera, herriko euskalkia ere landuko genuke, hau da, bertako ondare aberatsaren jabe egingo lirateke haurrak eta honen biziraupena ziurtatzeko beharra ikusiko lukete. Hau horrela izanik, argi dago honekin guztiarekin herriarekiko atxikimendu sentimendua eta ikastetxearekiko pertenezia sustako genituzkeela. Hortaz, jomuga nagusia, hots, toponimoen biziraupena lantzen ariko garen heinean, argi dago bigarren mailako zenbait helburu ere garatuko direla, hala nola arestian aipaturiko egoera fisikoaren hobekuntza, herriarekiko pertenezia sentimendua edota euskalkiaren sustapena.

Bigarren mailako helburuekin jarraituz, lan hau gaur egungo bizi estilo sedentarioarekin amaitzeko probestu dezakegu; izan ere, ni oso pertsona aktiboa izanik, jarduera fisikoa eta kirola maite ditut eta nire ingurukoei zaletasun hau helarazten ahalegintzen naiz. Jomuga honi atxikiturik dago beste bigarren mailako bat, ikasleei jarduera

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

fisiko ezberdinak ezagutzeko aukera eskaintzea eta hauekiko zaletasuna hedatzea, hain zuzen ere. Hau erdiesteko, oinez, korrika, txirrindulaz edo irristaketan ibiltzeko aukera eskainiko diegu ikasleei; beti ere ibilbide bakoitzaren ezaugarriak eta ikasleen nolakotasunak kontuan harturik, noski. Era honetan lan egitean, ikasleen ohitura sedentarioekin amaitzearekin batera, euren egoera fisikoa hobetuko dugu; beraien erresistentzia eta indarra landuko baititugu.

Bestalde, bigarren maila batean egonagatik ere, aipatu beharra dago ikasleen arteko harremantze osasuntsuak landuko direla; izan ere, KiVa metodologiari esker, kide ezberdinekin elkarlanean arituko dira gaztetxoak. Ildo beretik jarraituz, harremantze horiek ikasgela barruko lagunekin ez ezik, maila ezberdinetako kideekin ere landuko lirateke, ibilbideetan zehar adin ezberdinetako umeekin elkartuko baitira. Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Etapako Irakaskuntzen Curriculuma oinarri harturik, bertako 10. artikuluan aipatzen diren funtsezko kompetentzietatik komunikazioarena, digitala, pertsonala eta soziala, herritarra eta kulturala garatuko dira. Era berean, curriculuma garatzea ezinbestekoa denez, proposamen didaktikoa helburu honetara bideratuko da; hau da, bertan aipatzen diren oinarritzko jakintzak, helburuak eta gaitasunak lantzea, hain zuzen ere.

Hortaz, helburuak hitz gutxitan aipatuz, Proposamen Didaktikoaren helburuak bizi estilo aktiboa sustatzea, herria eta bertako ondarea hedatzea, harremantze osasuntsuak sustatzea eta ikasleak arlo ezberdinetan garatzea lirateke.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Ikaskuntza Zerbitzua

4.1.1. Hezkuntza

Historikoki hezkuntzari funtzio ezberdinak atxikitu zaizkio, hala eta guztiz ere, tradizionalki helburu nagusia norbanakoak heztea eta oinarritzko jakintzak barneratzea izan da. Dena den, gaur egun ikuspegi hau zaharkituta gelditu da eta curriculumaren garapena lantzeaz gain, hezkuntzari beste hainbat funtzio txertatu zaizkio. Honen harira, hezkuntzak ikasleak herritar gisa garatu nahi ditu, euren bizitzarako prestatuz. Lan hau erdiesteko eta kontuan izanik gizakiok sozialak garela, herritartasunerako heziketa bermatzea ezinbestekoa du hezkuntzak; izan ere, honen bitartez gizarteko norbanakoen arteko

kohesioa bermatuko da eta (Battle, 2013). Hau horrela izanik, argi dago irakaskuntza prozesuek pertsonon hezkuntzan eta hazkuntzan garrantzia handia daukatela, hortaz, hezkuntzaren birplanteamendua nahitaezkoa dela eta helburu horiek erdiesteko Ikaskuntza Zerbitzua oso eraginkorra eta baliogarria dela.

4.1.2. Definizioa

Ikaskuntza zerbitzuarekin hasi baino lehen, aitortu beharra daukat oso zaila suertatu zaidala aho batez adosturiko definizio bakar bat topatzea. Izan ere, guztiek amankomuneko zenbait ezaugarri dauzkaten arren, berriek ideiarekin bat gehitzen zioten alde aurretik adosturiko bati. Dena den, gaur egun hedatuena dagoena eta gehienetan erabiltzen dena Josep Maria Puigek proposatutakoa eta Kataluniako Centre Promotor d'Aprenentatge Servei-k berea egindakoa da: "Ikaskuntza zerbitzua ikasketa prozesuak eta komunitatea hobetzeko egiten diren zerbitzuak ongi artikulatuta dagoen proiektu batean batzen dituen hezkuntza proposamen bat da. Proiektu honetan, parte hartzaileek haien inguruan dauden behar errealetan inplikatzeko ikasten dute, betiere, komunitatea hobetzeko xedearekin" (de la Cerda, Graell, Martín, Muñoz y Puig, 2009:29).

Hedatua dagoen bigarren definizio bat honakoa litzateke: "Ikasketa zerbitzua hezkuntza proposamen bat da, eta ikasketa zein komunitatearentzako zerbitzua bateratzen ditu ondo egituratutako proiektu bakar batean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, ingurune benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz." (Puig, Battle, Bosch eta Palos, 2007). Hortaz, hau horrela izanik, lehen bi definizio hauek alderatu eta gero, termino laburtzealdera, argi dago ikaskuntza zerbitzuan nahitaezkoak diren bi alderdi daudela. Alde batetik, ikasleek parte hartze aktiboaren bitartez ikasi egin behar dutela; eta, beste aldetik, gizarteari zerbitzu eskaini behar dietela. Behin ezaugarri nagusiak aipatu eta gero, ezaugarrietan murgilduko gara.

Autore anitzek eskaintako xehetasunei eutsita; esate baterako, ikaskuntza zerbitzuan, ikasleek euren gertuko nahiak edota beharrak identifikatu eta hauek asetzeko proposamenak sortu beharko dituzte. Ondorioz, aurrera eramanez duten prozesu horretan eskuratzen dute ikaskuntza. Are zehatzago, ikasleek proiektuko ezagutzak eta kompetentziak lantzen eta eskuratzen dituzte; alde batetik, ikasketxeko oinarrizko jakintzak sakonduz, eta, beste aldetik, ikasketxearen eta giza komunitatearen artean egiten diren elkarlanean eginkizun arduratsuak burutzen dituztelako (Tapia, 2000). Hontaz gain, Puig (2007) ikerlariak emandako definizioaren aburuz, ikaskuntza zerbitzuak ikaskuntza bizitzen du, bizi ematen dio; izan ere, ikaskuntza eta bizitza hurbiltzearen ibilbide bidirekzionala da. Beste batera esanda, gizartearen desira betetzea, ikerketaren poztasunaz gozatzea eta hausnarketan, interesen zein analisisen ideiak birformulatzea.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Ikasleen bizitza ikaskuntzara hurbiltzean, hauen baliabide pertsonalak hobetzen dira, honi esker, bizitzan aurkituko dituzten erronka ezberdinei aurre egiteko eta hauek gainditzeko prestatuko dituelarik. Bestalde, prozesu honetan zehar nor bere garapen propioaren protagonista denez, ikasleei haien hazkunde pertsonalean eta gizarte erantzukizunetan laguntzeko prestatuko ditu ikaskuntza zerbitzuak. Hau horrela izanik, esan daiteke ikaskuntza zerbitzuak ikaslea bere ikaskuntza prozesuko protagonista nagusia bihurtzen duela, baita bere garapen pertsonal eta herritar gisa dituen eginbeharrez ohartarazten duela (Mendia, 2012).

Hitz gutxitan laburtuz, baieztatu genezake ikaskuntza zerbitzuak norbanakoaren arlo anitz lantzen dituela, izan ere, ikasleei oinarritzko jakintzak eskuratzen laguntzeaz gain, hauen trebetasunak, balioak, jarrerak eta konpromezu sozialak ere garatzen ditu. Hortaz, ikasgelatik haratago iristen den metodologia izanik, esan genezake gizartearen alor ezberdinetaraino iristen dela, azken finean, ikasleen lanari esker komunitateari onurak eskaintzen dizkiolako; hau da, metodologia hezigarria izateaz gain, soziala ere bada.

4.1.3. Ikaskuntza zerbitzuaren aldeko arrazoiak

Sanduzelai auzoan kokatuta dagoen izen bereko ikastetxeak metodologia aktibo eta berritzaileen aldeko apostua egin zuen; hau horrela izanik, ikaskuntza zerbitzua ere badarabilte haien ikasorduetan zehar. Hori ez ezik, Nafarroako Unibertsitate Publikoan metodologia berritzaileak aurkezteko hitzaldiak eskaintzen dituzte, eta horietako batean jaso nuen jarraian aipatuko ditudan zenbait xehetasun eta datu. Lehenik eta behin, argi dago ikaskuntza zerbitzua metodologia erabilgarria bezain positiboa suerta dakigukeela; izan ere, onura anitzak eskaintzen dizkigu norbanako bakoitzari zein gizarteari. Honen harira, jarraian, Sanduzelai Ikastetxe Publikoko hitzaldian jasotako informazioan oinarrituz, ikaskuntza zerbitzua praktikan jartzeko hainbat arrazoi eskainiko ditut.

1: Ikaskuntza zerbitzua erabiltzea beharrezkoa da hezkuntza gizartea aldatzeko tresna gisa berreskuratzen delako; hau da, ikastetxeetan egiten den lanari esker hamaika gauza eraldatzeko gaitasuna lantzen delako. Ikasle aktiboak lortzeaz gain, kritikoak ere bilakatzen dituelako.

2: Aurreko ideari xehetasunak gehituz, argi dago ikasleek euren herritartasun parte-hartzailea eta demokratikoa defendatzen dutela eta ideia hori ondo barneratzen dutela. Beste batera esanda, gaztetxoek ulertzen dute gizartean bere lekua zein den eta euren tokian zer esana badaukatela.

3: Ikaskuntza zerbitzua lantzea garrantzitsua da elkar zaintzaren etikan oinarritzen delako eta talde lanak zein berdinen arteko harreman horizontalak barneratzen dituztelako.

4: Irakaskuntzari dagokionez, oinarrizko jakintzak edota edukiak lantzeaz gain, alderdi kognitiboak, jarrerazkoak eta moralak uztartzen dituzenez, ikasleak bere osotasunean garatzen dituelako.

5: Ikaskuntza zerbitzuak gaztetxoek motibazioa eta beraien emaitza akademikoak hobetzen ditu; izan ere, lana euren interesetatik abiatuz burutzen dutenez, elkarlanean oso gustora aritzen dira.

6: Arlo akademikotik at ere onura ezberdinak eskaintzen ditu ikaskuntza zerbitzuak, adibidez, ikastetxea eta auzoa edo herriak kohesionatzen ditu bertan burutzen den lanari esker. Hau da, gizarteari behar duen hori eskaintzen zaionez, zentroko ikasle zein familiak lanean are gehiago inplikatuko dira bertako atxikimendu sentimendua indartuz.

7: Hori gutxi balitz, auzolana edota bolondres lanak ikaragarri sustatzen ditu, ikasleek euren gertukoak lanera gonbidatzen dituztelako.

8: Ikasle zein irakasleek luzez egindako lanak gizarteari eskaintzen zaizkio, beraz, burututako guztia plazaratzen dute eta edonork ikus ditzake ikastetxean sortutako edukiak, horrek suposatzen duen harrotasunarekin eta dakartzan ondorio positibo guztiekin. Beste batera esanda, auzoak edota herriak ikasleen lana errekonozitzeko eta oniritzia jasotzeko balio du.

Sanduzelai Ikastetxe Publikoak ikaskuntza zerbitzuaren aldeko arrazoi hauek eskaintzen ditu, izan ere, argi dago ikasleenganako onurak euren alderdi guztietan nabarmenak izateaz gain, haien herrian, auzoan edo testuinguruan ere somatzen direla. Beste batera esanda, ikaskuntza zerbitzua horren anitza da, non bere ondorio positiboak arlo akademikotik eta ikaslearen norbanakotik haratago iristen diren.

4.1.4. Oinarrizko edukiak

Jaques Delorsek (2013:23) ikaskuntza zerbitzuek eta hauekin erlazionatutako proiektuek hezkuntzari bere oinarrizko lau zutabeak garatzen laguntzen dietela baieztatu zuen:

-Gizartea, errealitatea ezagutzen jakitea: Ezinbestekoa da ikasleek euren testuingurua zein den ulertzea, beste batera esanda, gizartea ezagutu behar dute eta Ikasketa Zerbitzuak hortan asko laguntzen die. Hasteko, norbanako bakoitzak bere ingurua ezagutzen duenean ulertzen du zer eskaini diezaiokkeen eta zer falta zaion, gero, metodologia honen bitartez hortan lanean arituko delarik. Bestalde, ezagutzen ikastea baino lehen, ikasten ikasi behar dute, horretarako, atentzioa, memoria eta pentsamendua lantzen dituztelarik. Dena den, argi izan behar dute ikaskuntza ez dela inoiz ere ez amaitzen eta bizipen guztietatik lor daitekeela jakintza. Delorsek esandakoan oinarrituz, oinarrizko

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

irakaskuntzak arrakasta duela baieztatu dezakegu norbanakoari bizitza guztian zehar ikasten jarraitzeko aukera eskaintzen badio.

-Egiten ikastea: Delorsen iritziz, egiten ikastea eta ezagutzen jakitea bereizezinak dira. Ikaskuntza prozesuen egitekoa norbanakoak garatzea da, ikuspegi tradizionala errotik moztuz. Hau da, egunerokotasuneko praktiken igorle baino askoz ere gehiago dira, hala ere, hauek balio hezitzailea dutela ahaztu gabe, noski.

-Elkarbizitzen ikastea: Ideia gakoa dugu hau, ukazina da ikastetxeetan elkarbizitzarako arauak eskaini behar dizkiegula ikasleei; esate baterako, errespetuzko jarrerak izatea, biolentziaren aurkako jokabideak edota iritzi ezberdinen aurrean eztabaida osasuntsuak edukitzea. Helburu hau erdiesteko Delorsek talde lanak proposatzen ditu, baina kooperazio lan horietan, beti ere, berdintasuneko testuinguruak sustatuz eta helburu zein proiektu amankomunak partekatuz. Izan ere, horrela jokatzean, kooperazio lasaia eta erlazio osasuntsuak sustatzeko aukera izango genuke.

-Izaten ikastea: Hezkuntzak pertsona bakoitzaren garapen orokorra sustatu behar du: gorputza eta burua, adimena, sentsibilitatea, zentzu estetikoa, erantzukizun indibiduala eta espiritualtasuna. Honi esker, norbanako autonomoak eta kritikoak sortzen ariko ginateke, ondoren, eurak euren kasa iritzi pertsonalak edota erabaki posible egokiak hartzeko gai izango direlarik.

4.1.5. Ezaugarriak

Arestian esan bezala, aho batez adosturiko definiziorik ez daukan terminoa izanik, asko dira ikaskuntza zerbitzua zer den azaltzen saiatu diren adituak. Hala eta guztiz ere, bakoitzak bere definizio eman arren, amankomuneko zenbait ezaugarritan ados daude; hortaz, honako hauek lirateke ikaskuntza zerbitzuaren nahitaezko ezaugarriak. (de la Cerda, Graell, Martín, Muñoz y Puig, 2009):

- Komunitatearentzat onuragarria den ekintza bat egitea.
- Zerbait ikastea.
- Zerbitzu bat egitea.
- Esperientzia esanguratsu bat bizitzea.
- Hausnarketa ekintzak aurrera eramatea.
- Beste erakundeekin elkarlanean aritzea.
- Hiritarren prestakuntzan laguntzea.

Definizioarekin gertatzen den bezala, ezaugarriekin ere ikuspuntu ezberdinak daude; Tapiaren aburuz, zazpi ezaugarri ordez, hiru dira Ikaskuntza Zerbitzuak berezko dituen ezaugarriak (Tapia, 2010).

Lehenik eta behin, ikasleen *protagonismo aktiboa* sustatzen du; hau da, sekuentziazioaren erdigunean ikasleak daude. Gainera, aipatu beharra dago, metodologia berritzaile hau eraginkorra adin tarte guztiakin dela; baita hezkuntza ez formalean ere. Ondorioz, ondo planteatuz gero, nonahi erabiltzeko aukera eskaintzen du.

Bigarren ezaugarriari eutsita, *zerbitzu solidarioa* eskaintzen du, hau da, gizartearen behar bati erantzuten dio. Helburu hau erdiesteko eta komunitatearen berezko arazoak konpontzeko, ikasleei egokitutako jarduera zehatzak prestatzen dira.

Azkenik, *ikasketak jakintzak eskuratzeko* planifikatzen dira; hau da, gizartearen beharra asetzeaz gain, ikasleek ere curriculuma lantzen dute eta ikaskuntza sustatzen da.

4.1.6. Ikaskuntza zerbitzuaren faseak eta etapak

Atal honetan ikaskuntza zerbitzua metodologia aurrera eramateko jarraitu beharreko faseak aurkeztuko dira. Dena den, faseetan murgildu baino lehen, ezinbestekoa da jakitea iritzi ezberdin anitz daudela; hau horrela izanik, proiektuaren inguruan gehien landu duten autoreen teoriak aurkeztuko dira txosten honetan.

María Nieves Tapia hezitzaile argentinarraren teoria izango da aurkeztuko den lehena. (Tapia, 2006) Proiektu sozialak martxan jartzeko hiru etapa orokorretatik igaro behar da: aurrenekoan errealitaterako hurbilketa egin behar da, hau da, arazoaren diagnostikoa eta proiektuaren planteamendua; jarraian, proiektuaren gauzatzea burutuko genuke, beste batera esanda, aurretik planteatutako hori aurrera eramango genuke; amaitzeko, proiektuaren itxiera eta ebaluazioa egingo genituzkeelarik. Hau horrela izanik, era eskematiko batean argi gera dadin, honako hauek lirateke Tapiak proposatutako ikaskuntza zerbitzuaren faseak:

-Diagnostikoa eta planifikazioa.

-Proiektuaren gauzatzea.

-Ebaluazioa eta sistematizazio finala.

Hala eta guztiz ere, Tapiak hiru fase hauen aurrekari bat ere proposatzen du, bertan, diagnostikatu eta planifikatu baino lehenago egin beharrekoak azaltzen dira; hala nola, ikaskuntza zerbitzua terminoaren ezagutza barneratzea, proiektua aurrera eramateko erakundeen eta norbanakoaren motibazioa sortzea eta ikasleak euren parte hartzearen garrantziaz jabetzea.

Ikaskuntza zerbitzuen faseen bigarren adituaren teoriari eutsita, Josep Palos Rodriguezena, alegia, defendatzen du (Palos, 2015: 153) "ikaskuntza zerbitzuko proiektu baten garapenak, ongi mugatutako etapen jarraipen bat behar duela ezinbestean proiektuaren xedeak lortzeko". Hori ez ezik, baieztatzen du "ikaskuntza zerbitzuko proiektu

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

bakoitza oso ezberdina dela eta faseen sekuentzia ezberdinak izan ditzaketela, baina oinarritzko elementu batzuk agertzen direla ziurtatzeko, egokia ikusten du ikaskuntza zerbitzu guztiek bost etapa nagusi izatea". (Palos, 2015: 103): Gure inguruan hedatuena dagoen teoria dugu hau, izan ere, ikaskuntza zerbitzua darabiltenak Josep Palosen lanean oinarritzen dira eta honako hauek dira, hain zuzen ere, autoreak proposatzen dituen ikaskuntza zerbitzuaren faseak:

-Proiektua prestatzeko eta antolatzeko fasea: Eman beharreko lehen urratsa litzateke, hau da, hasierako zirriborroko aspektu ezberdinen finkatze lana, hain zuzen ere. Behin elementuak definitu eta azaldu ondoren, zehaztasunez prestatu beharreko jardueren diseinua iritsiko litzateke, horretarako, euren testuinguruaren begirada kritikoa sustatuko dugularik. Era berean, une hau parte hartzaileen inplikazioa sustatzeko erabiltzea gomendagarria da; honi esker, hasierako unetik proiektuarekiko atxikimendua sentituko baitute eta motibazioa handituko baita. Ildo beretik jarraituz, insituzio ezberdinei hedatzeko probestuko genuke hasierako fase hau. Behin begirada kritikoa ondoren eta lanaren gaia finkatu eta gero, hori aurrera eramateko moduetan pentsatzen hasiko ginateke.

Kontuan hartu beharreko lehenengo ideia, eta, hortaz, proiektuaren lehenengo helburua norbanako baten ongizatea sustatuko lukeen ekarpena zein izango litzatekeen pentsatzea da. Horretarako, ezinbestekoa izango da testuingurua aztertzea, gabeziak identifikatzea, injustiziak zerrendatzea edota errealitatea alderatzea. Eztabaida osasuntsuei esker, ikasleen motibazioa eta hauen islada izango litzatekeen gabezia konponduko lukeen erantzun posiblean pentsatuko genuke. Azkenik, konponbide honetan laguntza eskaini dezaketen entitate edota erakundeak zeintzuk liratekeen pentsatuko genukeelarik. Behin hauekin harremanetan jartzean eta hauekiko komunikazioari eta kooperazioari esker, gure proiektuaren nondik norakoak definitzen joango dira, guk insituzioari eskainiko diogun hortan haiek gu zertan lagundu ahal gaituzten, alegia.

-Proiektua planifikatzeko fasea: Bigarren faseari ekin aurretik, ingurunea oinarrituko duen beharra, gizarteari eskainiko zaion zerbitzua edo onura eta elkarlanean arituko garen entitatea adostuta eduki beharko ditugu. Behin hau egin eta gero, eskura ditugun aspektu eta elementu guztiak bi multzotan banatuko ditugu; alde batetik elementu pedagogikoak eta, beste aldetik, kudeaketa elementuak.

Elementu pedagogikoak: Burutuko dugun proiektuarekin erdietsi nahi diren helburu nagusiak eta espezifikoak definitu beharko dira, ondoren, lorpen mailaren arabera adierazteko eta hauetan oinarrituz, horiek bertan ebaluatzeko.

Kudeaketa elementuak: Atal honetan gomendagarria litzateke arlo ezberdinak prest edukitzea, hala nola, ordutegiak, datak, ardurak, parte hartuko duten pertsona taldeak, familien onespina, aurrekontuak edota baliabideak.

-Proiektuaren gauzatzea eta jarraipena: Ikaskuntza zerbitzua denez, ekintzak bi arlo hauetan banatuko dira: ikaskuntzan eta zerbitzuan, alegia.

Ikaskuntzan: Ikasleak bereganatzen ari diren oinarriko jakintzen inguruan hausnartzea gomendagarria da, horretarako, hausnarketa uneak eta ariketak eskaintzea ondo legoke. Honi esker, ikasitako horrek zer ematen dioten, zertarako diren baliagarriak... ulertuko dute. Bestalde, une hauetan zehar agertzen diren emozio eta sentimenduek ere gai berriak identifikatzeko probestu ditzakegu.

Zerbitzuan: Ikasgela barruan zein erakundeetan burutzen diren jardueren jarraipena egin beharko genuke, enpatian, arduran, harremanetan, baliabideetan eta asistentzian zentratuz. Ildo beretik jarraituz, elkarlana burutuko dugun entitatearekin etengabeko komunikazio bidirekzionala beharrezkoa da, batik bat, koordinatzeko, informatzeko, emaitzak partekatzeko edota baliabideak aurreikusteko, besteak beste.

-Proiektua ebaluatzea. Ikaskuntza zerbitzua osatuko duten jarduera guztiak amaitu eta gero, ebaluazioa burutuko da; hau da, lana zuzentzearekin batera, honen balioaren edota porrotaren arrazoiak jakingo ditugu. Proiektuaren prozesu guztian zehar ebidentziak jasoko ditugu, dena den, amaieran, ebaluazio orokorra eta ahalik eta objektiboena egingo dugu. Ebaluazio egiteko bi alderditan jarriko dugu arreta, alde batetik, ikasleengan, hau da, helburuen lorpen maila, ikaskuntzen garapena... aztertuz; eta, beste aldetik, proiektuarengan bere osotasunean, metodologian, jardueretan edota antolakuntzan zentratuz. Azkenik, aipatu beharra dago, gomendagarria dela parte hartu dutenek ere ebaluazioan bere iritzia ematea, honi esker, proiektuaren indarguneak eta ahulguneak identifikatuko baititugu.

-Proiektua itxi eta zabaldu. Ikaskuntza zerbitzuaren ezaugarri bat gizarteari zerbait eskaintzea denez, burututako proiektua partekatzea ezinbestekoa suertatzen da. Horretarako, ospakizun bat egitea ideia ona da; bertan ikasleek euren lana aurkeztuko dutelarik eta gizarteari egindakoa eskainiko dietelarik. Ildo beretik jarraituz, honi esker, ikasleen lanaren aitortza eskaintzen du eta egindako guztiaren errekonozimendua jasotzeko balio du.

Laburbilduz, autoreek iritzi ezberdinak dituzten arren, hau da, ikaskuntza zerbitzuaren fase ezberdinak proposatzen dituzten arren, ados daude metodologiaren funtzionamendua egokia izan dadin fase zehatz batzuk jarraitu behar dituela. Bakoitzak bere izendapena erabiltzen du, baina azken finean guztiak antzekoak dira eta mami bertsua darabilte.

4.1.7. Ikaskuntza zerbitzuaren dinamismoak

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Dinamismoak (Puig, 2015) ikaskuntza zerbitzuko esperientziak osatzeko eta aurrera eramateko beharrezkoak diren elementu pedagogikoak dira. Hauek hiru talde ezberdinetan banatzen diren hamabi dinamismotan bereizten dira; era berean, ikaskuntza zerbitzuen esperientziak aztertzekeo baliagarriak dira. Hiru taldeak honako hauek dira:

-Oinarrizkoak: Nahitaez egon beharreko elementuak adierazten dituzte.

-Pedagogikoak: Proiektuaren hezkuntza proposamenaren oinarri diren elementuetara bideratuta daude.

-Antolakuntzakoak: Proiektuan parte hartzen duten erakunde eta instituzioen logistikara zuzendutako elementuei egiten die erreferentzia.

Ildo beretik jarraituz, Puigek hiru taldeak eta hamabi dinamismoak laburtzen dituen taula sortu zuen. (Ikus 1. taulan) (Puig, 2015).

1. Taula: Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuen dinamismoak (Puig, 2015)


<i>Ikaskuntza zerbitzuaren dinamismoak</i>	
<i>Oinarrizkoak</i>	<p><i>Beharrak:</i> Errealitateko zailtasunak ezagutu ondoren, honen egoera hobetzera bultzatzen duten ekintzak.</p> <p><i>Zerbitzua:</i> Detektatutako beharretan laguntza eskaintzeko egiten diren zereginak.</p> <p><i>Zerbitzuaren zentzua:</i> Burututako ekintzen eragina adierazten du.</p> <p><i>Ikaskuntza:</i> Oinarrizko jakintzen, gaitasunen, balioen eskuratzeari egiten dio erreferentzia, izan naturalki edo izan hezitzailearen lanari esker.</p>
<i>Pedagogikoak</i>	<p><i>Parte hartzea:</i> Ekintza diseinatzen, planifikatzen eta ebaluatzen parte hartzen dutenen lana.</p> <p><i>Talde lana:</i> Jardueren urrats ezberdinak garatzeko berdinen arteko elkarlana.</p> <p><i>Hausnarketa:</i> Bizitakoa aztertu eta gero, honi zentzua emateko eta ezagutza berriak eskuratzeko egindako prozesua.</p> <p><i>Errekonozimendua:</i> Jarduera burutu dutenei ekintza ondo egin dutela adierazteko ekintzen multzoa.</p> <p><i>Ebaluazioa:</i> Burututako lanaren emaitza eta nolakotasunak ezagutzeko prozesua, gerora hobetzen laguntzeko iruzkinak eskaintzea.</p>
<i>Antolakuntzakoak</i>	<p><i>Lankidetzak:</i> Ekintza bateratu bat burutzeko erakunde independente ezberdinen arteko elkarlana.</p> <p><i>Zentroen finkapena:</i> Hezkuntza zentro batek ikaskuntza zerbitzu proiektua ezagutzen eta hedatzen dueneko prozesua.</p>

	<i>Erakundeen finkapena:</i> Gizarte entitate batek ikaskuntza zerbitzu proiektua ezagutzen eta hedatzen dueneko prozesua.
--	--

4.1.8. Ikaskuntza eta zerbitzua: Koadranteak

Ikaskuntza zerbitzua sakonki landu duen María Nieves Tapia hezitzaileak, metodologia honek eskaintzen dituen koadrante ezberdinak azaldu ditu: (Tapia, 2010): “Grafikoak bi ardatz ditu; bata bertikala eta bestea horizontala eta bi ardatz hauen gurutzatzearekin lau koadrante sortzen dira. Grafikoaren ardatz bertikalak komunitateari eskaintzen zaion zerbitzuaren kalitatea neurtzen du eta horizontalak, aldiz, ikaskuntzaren kalitatea neurtzen du.” (ikusi 1. irudia)

1. Irudia: Ikaskuntza zerbitzuaren koadranteak



1.Irudia. Ikaskuntza zerbitzuaren koadranteak. (Tapia, 2010) “SERIVE-LEARNING 2000 CENTER, Stanford University, California, 1996-tik moldatua”.

Jarduera burutzeko eskaintako denborak eta komunitatearen beharrari erantzuteko gaitasunak adieraziko digu ikaskuntza zerbitzuaren kalitatea. Ardatz horizontalak, berriz, burututako zerbitzuaren eta curriculumeko edukien barnerapenaren arteko lotura ezartzen du. Arestian esan bezala, bi ardatz hauek lau koadrante sortzen dituzte, horietako bakoitza hezkuntza esperientzia bat delarik. (Tapia, 2010):

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

1:Esparru lanaldiak/laguntzaile lanak/ arazoetan oinarritutako ikaskuntza: Ikasleak komunitatearekin harremanetan jartzen dituzten ikerketa lanei deritzogu; bertan, ikasketa objektu gisa ikasten dela kontuan harturik. Errealitatea hobeto antzemateko, gaitasunak eta oinarrizko jakintzak testuinguru errealean garatu beharko lirateke. Ikasleari dagokionez, koadrante honetan beti hartzailea bera da eta garrantzia handia ematen zaio oinarrizko jakintzak eskuratzeari.

2: Ekimen solidarioa/bolondres lanak: Bere oinarria curriculumeko oinarrizko jakintzeekin lotura eskasa duten jarduerak dira. Hauek noizean behin behar espezifikoei erantzuteko sortuak dira; hortaz, ez dira instituzionalki antolatuak. Koadrante honetako lanari esker komunitatea da onuradunena, izan ere, lanak behar bati erantzuteko sortuak dira, hezkuntza-esperientziak bigarren mailan utzita. Bertako parte hartzea ez da derrigorrezkoa, hau da, nahi duen orok izena eman dezake, bolondres baita; gainera, ez dira ez ikasitakoa ezta parte hartze maila ere ez ebaluatzen.

3: Komunitate zerbitzua: Instituzio batek martxan jarritako ekintza solidarioei deritzogu. Iraunkorrak eta eraginkorrak izan ohi dira, instituzioen laguntza baitaukate. Herritarren parte hartzea handitzeko, behar sozialei erantzuteko eta giza konpromezua handitzeko helburuarekin sortuak dira. Koadrante honetan dauden esperientzek eragin handia daukate ikasleen garapen pertsonalean, arlo akademikoan, berriz, eragin murriztuagoa izan ohi dute hori ez baita hauen helburu nagusia.

4: Ikaskuntza zerbitzua: Kalitate handiko zerbitzua eta ikasketa akademiko formalak elkar erlazionatzen dituzten esperientzia praktikokoak dira. Curriculumeko oinarrizko jakintzen ikasketak barneratzeaz eta gizarte komunitateko beharrak asetzez arduratzen dira. Proiektu hauek bidirekzionalak dira, izan ere, ikaskuntza zerbitzuaren hartzaileak eta ikasleak, zerbitzuaren hornitzaile eta hartzaileak izaten dira; bi alderdiak hornitzen baitira proiektuarekin batera. Hori ez ezik, zerbitzuen onurak jasotzeaz gain, ikasleei zerbitzua eskaintzen diete.

4.1.9. Ikasleen parte hartzea

Ikaskuntza zerbitzua erabiltzeko argi izan behar dugu ikasleen parte hartzea ezinbestekoa dela, horretarako, ezaugarri honi lehentasuna eskaini beharko diogu. Metodologia berritzailea izanik, argi izan behar dugu norbaiti ezezaguna suertatuko zaiolakoaren arriskua dagoela, izan ere, oraindik oso hedatua ez dagoenez askok ez daukate esperientziarik. Hau horrela izanik, ikasleek proiektuan zehar izango duten esku hartzea hiru fasetatik igaro daiteke.

Lehenik eta behin, irakasleak ikasleei behar soziala identifikatzen eta zerbitzua gauzatzeko urratsak erakusteko aukera dago. Hemen, ikasleen parte hartzeak lehentasuna

duen arren, irakaslearen laguntza ezinbestekoa da gaiaren nondik norakoak aurkezterako orduan. Era berean, proposamenaren bidelaguna ere izanik, tutoreak bere iritziak eta ideiak eskaini ditzake eta ikasleek horiek onartzeko edo baztertzeko aukera daukate.

Bigarren faseari dagokionez, ikastetxeak gizartearen beharrak identifikatzen ditu eta eta gainontzeko proposamen guztia ikasleen esku uzten dute. Hemen, gaztetxoak dira zerbitzua planifikatu eta garatzen dutenak; beste batera esanda, hasierako urratsa ikastetxeak edota gizarteak eman eta gero, ikasleek egingo dute jarraian datorren lan guztia. Ondorioz, argi dago hemen herritar gisa garatzen doazela eta euren autonomia maila asko igotzen dela.

Hirugarren eta azken fasean, ordea, ikasleak dira urrats guztiak ematen dituztenak; hau da, gizartearen beharra beraiek bertan identifikatzen dute eta hutsune hori betetzeko proposamena ere gazteek diseinatu eta planteatzen dute. Ikasle helduenekin burutzeko urratsa litzateke hau, dagoeneko pentsamendu kritikoa, sortzailea eta autonomia garaturik dauzkateneekin, alegia.

4.1.10. Nondik hasi?

Behin Ikaskuntza Zerbitzua zer den eta bere oinarritzko edukiak zeintzuk diren azaldu eta gero, Sanduzelai Ikastetxe Publikoko hitzaldian esandakoan oinarrituz, metodologia berritzaile honekin lehen urratsak emateko estrategia ezberdinak aurkeztuko ditut. Izan ere, askotan zailena proiektua ekitea izaten da, gaia zein izango den adostea, alegia. Horretarako, gizarteari eskaini beharreko zerbaite den heinean, aukera anitzak eskaintzen ditu Ikaskuntza Zerbitzuak.

Aukera posible bat litzateke ikastetxean bertan edota beste zentro batean egindako proposamena eraldatzea; hau da, gaia berdintsua izanik, urratsak gurera egokitu eta metodologiarekin aurrera egin. Hau egiteko, posiblea litzateke sortzaileekin harremanetan jartzea eta laguntza eskatzea. Bestalde, Ikaskuntza Zerbitzuaren gaia berdina bada, ikastetxe ezberdinen arteko elkarlana ere posiblea litzateke, ikasle guztiarekin bat eginez.

Ideia hauetaz gain, ikastetxeko kideei, hala nola, gainontzeko irakasleei edota familiei ere galdetuz, posiblea litzateke gizarteak duen behar bat identifikatzea eta hori asetzeko proposamena planteatzea. Estrategia honi jarraituz gero, behar den laguntza zein den jakingo dugu eta gure zerbitzua honen inguruan zentratuko dugu.

Azkeneko estrategia gizartea aztertzea litzateke, guk geuk beharrak identifikatzea eta horiek asetzeko proposamenak diseinatzea, garatzea eta aurrera eramatea. Urrats hau konplikatuena litzateke, proiektua zerotik hasi beharko genuke eta; hala eta guztiz ere,

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

osotasunean gurea denez, gure beharretara eraldatzeko aukera izango genuke, une orotan eroso sentiarazteko.

4.1.11. Proiektuaren plangintza

Behin proiektuari hasiera eman eta gero, aurrera egiteko plangintza nola gauzatu beharko genukeen azalduko dut. Honetarako, bi eremu nagusitan banatuko dut proiektua; alde batetik, proiektuaren alderdi pedagogikoak; eta, beste aldetik, proiektuaren kudeaketa eta antolakuntza.

Alderdi pedagogikoak zehazterako orduan hainbat ideia adostu beharko ditugu, hala nola, irakaskuntza arloko helburuak, gaitasunak, ebaluazio irizpideak edota oinarrizko jakintzak zeintzuk izango diren. Era berean, aurrera eramango ditugun jarduera ezberdinak diseinatu beharko ditugu. Bestalde, hezitzailearen zeregina eta eginkizunak ere finkatu beharko ditugu, horretarako, proiektua gauzatzeko behar den prestakuntza lortzeko urratsak eman beharko ditugularik.

Proiektuaren kudeaketa eta antolakuntza zehazterako orduan honako hauek dira kontuan hartu beharreko irizpideak. Lehenik eta behin egutegia eta ordutegia finkatzeko beharra daukagu, saioak noiz hasi eta noiz bukatuko ditugun jakiteko eta eskuragarri daukagun denbora zein den ulertzeko. Bestalde, lana aurrera eramaterako orduan beharrezkoak izango ditugun baimenak, jakinarazpenak, aseguruak, materialak eta aurrekontua biltzea ere ezinbestekoa da. Azkenik, alderdi guztien arteko komunikazioa eta koordinazioa finkatzea ere garrantzitsua da lanak aurrera egin dezan.

4.1.12. Ospakizuna

Ikaskuntza Zerbitzuetan behar-beharrezkoa da proiektuaren amaieran ospakizuna egitea, honi esker, ikasleek egindako lanaren errekonozimendua edo aitortza jasotzen dute, ez soilik irakasleengandik, baita gizartearengandik ere bai, ondorioz, proiektuari eskainitako denbora guztiak eta burututako lan guztiak balio duela ulertuko dute. Honi esker, gaztetxoek autoestimua asko indartuko dugu; gainera, proiektua familiekin partekatuko dugu, eta, azkenik, ikasle-ikastetxe-gizarte harreman tridirekzionala asko indartuko dugu, bertako partaide direla ikusiz. Ildo beretik jarraituz, ospakizun honen bitartez gizarteari ikasgelan landutako onura eskaintzen diogu, azken finean hori baita ikaskuntza zerbitzuaren gakoak, ikasketen bitartez landutakoa gizarteari eskaintzea, hain zuzen ere.

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

5.1. Sarrera

Proposamen Didaktikoarekin hasi baino lehen, beharrezkoa iruditzen zait proiektua kokatu dudan testuingurua azaltzea; izan ere, ingurugiroak eta honen ezaugarriak lanaren nondik norakoak baldintzatuko ditu. Proiektua Etxarri Aranatzeko kokatu dut, Nafarroako Sakana haranean kokaturik dagoen herri txiki batean, hain zuzen ere. Bestalde, txostenean aurrera egin ahala xehetasun gehiago aurkezten joango naizen arren, aipatu beharra daukat, hasiera batean, proposamen hau Andra Mari Ikastolan aurrera eramateko diseinatu dudala; bertako metodologia eta proiektu didaktikoak ondo ulertzen ditudalako eta ikastetxeko langilearen laguntza ezinbestekoa suertatu zaidalako. Lana hemen aurrera eramatea pentsatu dut KiVa metodologia erabiltzen dutelako eta, ikaskuntza zerbitzuarekin batera, nire proposamenaren ardatz nagusienetako bat izango delako.

Ikaskuntza Zerbitzuaren bitartez aurrera eramango den proiektu honen helburu nagusia herriari toponimiaren biziraupena eskaintzea da. Bestalde, gaztetxoek, mugimenduaren eta jarduera fisikoaren bitartez euren egoera fisikoa hobetzeko eta gaur egungo bizimodu sedentarioarekin amaitzeko probestuko da. Aldi berean, KiVari esker ikaskideen arteko harremanak indartzeko baliagarria da proiektua. Gainera, herriko gaztetxoenei leku ezberdinen izenak erakutsiz Etxarri Aranazko toponimiaren biziraupena bermatu nahi da. Honen harira, aipatu nahiko nuke ikasleen adina kontuan izanik zenbait aldaketa eskainiko ditudala; esate baterako, lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleei izenak ez ezik, toponimoaren informazio esanguratsua ere eskainiko zaie. Ildo beretik jarraituz, ikaskuntza zerbitzua metodologia oinarri hartu dela jakinda, gizarteari, kasu honetan, herriari, bertako toponimiaren biziraupena ziurtatuko dio, hau da eskainiko dioguna. Horretarako, ikasleek ibilbide toponimikoak markatuko dituzte eta burututako lana edonorri plazaratuko diote.

Aurretik aipatutako helburuetaz gain, ezin ditzakegu ekainaren 22ko 67/2022 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren Etapako Irakaskuntzen Curriculumak, 8. Artikuluan, Etaparen helburuak atalean ezartzen dituenak ahaztu. Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutzea eta estimatzea; taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura sustatzea; gatazkak eta harremanak kudeatzea; Nafarroako Historia, hizkuntza, kultura eta ohiturak ezagutzea; osasuna balioetsiz gorputz anitzak errespetatzea eta indarkeria guztien aurkako jarrerak garatzea; hain zuzen ere. Curriculumetik lortutako helburu hauek proposamen didaktikoarekin aurrera egin ahala eskuratuko dituzte ikasleek;

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

honen harira, aipatu beharra daukat txostenaren hurrengo ataletan hauek nola lortuko dituzten azalduko dudala.

Aurreikusitako helburuak betetzen badira, argi dago Ikaskuntza Zerbitzua metodologia eraginkorra dela, lanaren emaitzak gizarteari bi onura edota ondorio positibo eskainiko dizkiolako; biztanleen osasuna eta herriaren ondare historikoari zilegitasuna ematea, hain zuzen ere.

Curriculum Ofiziala ahaztu gabe, funtsezko konpetentziak izendatzen diren 10. artikulua oinarri harturik, toponimia lantzeko proposamen didaktikoan hizkuntza komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia digitala, konpetentzia pertsonala eta soziala, herritar konpetentzia eta kulturaren kontzientziarekin erlazioatutakoak garatuko dituzte ikasleek.

Era berean, beharrezkoa da aipatzea proposamen didaktikoak atal ezberdinak edukiko dituela; alde batetik, ikasgela barruan landuko diren saioak, eta, beste aldetik, toponimoetara gerturatzean burutuko diren ibilbideak. Ikasgela barruan landuko diren saioak urriak izango dira, Gorputz Hezkuntzako saioak izanik ikasleen denbora motorra ahalik eta handien izatea nahi delako. Ildo beretik jarraituz, toponimoak ezagutzeko egingo diren ibilbideak kirol ezberdinen bitartez egiteko aukera eskainiko diegu ikasleei, honi esker, ahalik eta eroso sentiaraziko ditugu eta motibazioa izugarri handituko da.

Bestalde, aipatu nahiko nuke nik sortutako proposamen didaktikoa izanagatik ere, harrotasunez beteko nindukela herriko edonork erabiltzea, eta, aldaketak edota iradokizunak edukiz gero, poztasunez jasoko nituzkela. Honen harira, jardueren inguruan zenbait aldaera pentsatu baditut ere, argi dago irakasle bakoitzak proposamena bere ikasleei egokitzeko aukera daukala eta aldaerak egin ditzakela. Hau eginez gero, hasiera batean lehen hezkuntzako ikasleentzat prestatua egonagatik ere, adin guztietako biztanleekin aurrera eramateko baliagarria iruditzen zait.

5.2. Justifikazioa

Gai hau hartzearen arrazoia herriarekiko sentitzen dudana atxikimenduan eta familiako testuinguruan entzundako elkarrizketetan dago. Nire familiak beti izan du naturan egoteko zaletasuna, hau horrela izanik, gurasoek, aiton-amonek, izeba-osabek... beti erabili izan dituzte etxarriko toponimiaren izenak, baina ni ez nintzen hauek kokatzeko gai, hortaz, elkarrizketan galdu egiten nintzen eta frustratuta sentitzen nintzen. Horrekin amaitzeko, etxean aitari, jaiotzetik etxarriara baita, izen horiek erakusteko eskatu nion eta, gutxinaka-gutxinaka, horietako asko eta askoren berri eduki nuen. Gainera, duela hamar urte inguru, Etxarri Aranazko Udalak eta bertako Toponimia Batzordeak, toponimo asko eta askoren izenak eta kokapenak adierazten zituzten harriak ipini zituzten. Jarraian sortuko

dudan proposamen didaktikoaren oinarria izango direnak, hain justu. Ildo beretik jarraituz, herriaren izen propioak bizirik mantentzeko beharra erreal dela somatzen dudanez, proposamen didaktiko honekin belaunaldi berriek ere gure toponimoak ikasteko eta kokatzeko aukera izatea beharrezkoa iruditzen zait. Azken finean, galtzen ari diren izenak direnez, hauek bizirik mantentzeko ilusioa eta gogoia somatzen ditut eta, lan polita eginez gero, ikasleekin ez ezik, haien gurasoekin eta aiton-amonekin ere partekatuko ditut. Gainera, ikaskuntza zerbitzua metodologia erabiliko dudanez, ukalezina da familiak inplikatzeko direla, eta herriarekiko atxikimendua ez ezik, ikastetxearekiko lotura ere indarberrituko dela.

Bestalde, arestian esan dudan bezala, proiektuak bi helburu nagusi dauzkan arren, bigarren maila bateko zenbait helburu ere erdietsi nahi dira, esate baterako, herriarekiko atxikimendu sentimendua indartzea edota herritarren arteko harremanak areagotzea. Lan hauek erdiesteko, ibilbide toponimiko eta jolas aktibo ezberdinak proposatuko zaizkie ikasleei; beti ere hauetako guztietan zehar Etxarri Aranazko leku izen ezberdinak ezagutuko dituztelarik, noski. Proposamen didaktikoaren atal praktikoan hamaika aukera eskainiko zaizkie ikasleei, hala nola, txirrindulaz, oinez egitea, korrika, lasterketak, patinetan,... izan ere, nik burutzen ditudan bi kirol nagusiak mendi lasterketak eta txirrindula direnez, proposamen didaktiko honi esker ere biek bat egiten dute eta nire burua eroso sentiaraziko dut guztia aurrera eramaten dudan heinean.

Proposamen didaktikoarekin aurrera egin ahala ibilbide ezberdinak proposatuko dira eta hauetan zehar ikasleek Etxarriko toponimo anitzak eta euren kokapenak ezagutuko dituzte. Hori ez ezik, zenbait kasutan ere hauen datu esanguratsuak edota xehetasunen bat ikasteko aukera izango dute. Dena den, argi utzi nahi nuke, ikasleen adinak proposamen didaktikoa goitik behera baldintzatuko duela eta, hau kontuan izanik, lehen hezkuntzako adin ezberdinekin aurrera eramateko aldaerak prestatuko ditudala.

5.3. Testuingurua

Proposamen didaktikoaren azalpenarekin hasi baino lehen, eskualdea, herria eta nik hautatutako ikastetxea kokatuko ditut, horretarako, hauen testuinguruaren informazio esanguratsuen aipatuko dudalarik.

5.3.1. Etxarri Aranatz

Etxarri Aranatz Nafarroako Foru Komunitateko Sakana bailaran kokatuta dagoen udalerrri bat da, hortaz, argi dago gune natural anitzez inguratutako herria dela hau. Proposamen didaktikoaren ildoari jarraituz, Etxarri harrizko etxea adierazi nahi du. Bertako

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

biztanleek darabilten hizkuntzari erreparatuz gero, ukaezina da Etxarri Aranatz herri euskalduna dela, hori ez ezik, bertako euskalki propioa dagoenez, oso aberasgarria suertatzen da bertakoekin euskaraz mintzatzea. Biztanleriari dagokionez, 2500 inguruko populazioa edukitzeagatik ere, proposamen didaktikoa, batik bat, lehen hezkuntzako gazteentzat prestatu da. Hala eta guztiz ere, proiektuaren amaieran hauek egingo duten eskaintza herritar guztientzat irekiko da; hortaz, herriarekiko atxikimendua eta pertenezia sentimendua ere landuko da.

5.3.2. Andra Mari Ikastolaren testuingurua

Andra Mari Ikastola 1969. urtean euskara eta euskal kultura sustatzeko herri ekimenez sortutako ikastetxe euskalduna da.

5.3.2.1. Baliabideak

Baliabide naturalekin hasteko, Andra Mari Ikastolak naturarekiko daukan erlazioa oso estua da, izan ere, herriko gunerik berdeetara iristeko bikain kokatuta dago. Ikastolatik iparralderantz beheko basoa dago, bertan proposamen didaktikoan ezagutuko dituzten leku izen pila bat daudelarik, bertaraino iristea oso erraza da. Kilometro bat baino gutxiagoko distantziara egoteaz gain, espaloi zabal batek segurtasun handia eskainiko die ikasle zein irakasleei. Bargari eta derminoari dagokionez, hegoalderantz gelditzen dira; bide guztian zehar toponimoak egonagatik ere, mendiaren sarrera, hots, espazio berdea, bi kilometrotara kokatuta dago. Hau horrela izanik, ibilbideak egiteko ez da bestelako zailtasunik egongo, goizean goiz Ikastolan bilduko gara, eta, gero, egun bakoitzeko saioa guztiok elkarrekin burutuko dugu. Hala eta guztiz ere, eranskinetan aurkezten den bezala, Putterriko irteerarako autobus zerbitzua ezinbestekoa izango da, ikastolatik zortzi kilometrotara baitago.

Ikasleei dagokienez, Andra Mari Ikastolako Lehen Hezkuntzako gaur egungo ikasle kopurua ugaria da, beraz, etapako maila guztietan A eta B gelak daude, laugarren mailan izan ezik, 24 ikasleak batera biltzen direlarik. Hau horrela izanik, honakoa da ikastetxeko ikasleen banaketa (ikus 2. taula). Dena den, proposamen didaktikoa maila guztiekin egitea posiblea den arren, kasu honetan hirugarren zikloko seigarren mailako ikasleekin garatzea aurreikusi da. Erabaki hau hartzearen arrazoi nagusia egoera fisikoan dago, izan ere, sei urteko umeek baino erresistentzia handiagoa edukiko dutenez, ibilbide gehiago egiteko aukera egongo da.

Hortaz, Andra Mari Ikastolako seigarren mailan hogeita hamaika kide biltzen dira; A eta B gelatan banaturik. Hala eta guztiz ere, KiVa metodologian oinarriturik, taldeak osatzerako orduan bi ikasgelak nahasiko ditugu.

2.Taula: *Andra Mari Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak gelaka antolaturik*

<i>IKASMAILA</i>	<i>IKASGELA</i>	<i>IKASLE KOPURUA</i>	<i>GUZTIRA</i>
1.MAILA	LH1A	16	31
	LH1B	15	
2.MAILA	LH2A	20	39
	LH2B	19	
3.MAILA	LH3A	16	33
	LH3B	17	
4.MAILA	LH4	24	24
5.MAILA	LH5A	18	36
	LH5B	18	
6.MAILA	LH6A	16	31
	LH6B	15	
<i>GUZTIRA</i>		194	194

Baliabide materialei eutsita, bi multzo handitan bereiziko dira; alde batetik, ikasgela barruko saioetan erabiliko direnak, eta, beste aldetik, ibilbideetan erabiliko direnak. Saio teorikoetan, batik bat, ordenagailuak, liburuak, senideen elkarrizketetako informazioa, proiektagailuak eta arbela digitalak erabiliko dira. Ildo beretik jarraituz, Ikastolako Informatik gela eta liburutegia ere eskuragarri izango dituzte ikasleek. Era berean, Jose Luis Erdozia Mauleonen *Etxarri Aranazko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala*. liburua, Google Earth eta Nafarroako Toponimia Batzordearen mapak ezinbesteko baliabideak izango dira talde guztientzat. Behin kalera irtetean, baliabideen eskaintza asko irekiko da; izan ere, ibilbideak hamaika era ezberdinetan burutzeko aukera baitago; esate baterako, txirrindulak, patinak, korrika egiteko oinetako egokiak, planoak, mugikorrak, kirolerako erlojuak, Trackak, hala eta guztiz ere, kanpoaldean burutuko diren saioetan nahitaezko baliabide multzo bat dago, bertako toponimia ezagutarazteko Udalak txertatutako harriak, hain zuzen ere.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

5.4. Proposamen didaktikoaren aurretik landu beharrekoak: Toponimia

Lehenik eta behin, toponimo hitzaren jatorria argi uztea gustatuko litzaidake, toponimo hitza grekeratik dator: "topos" (lekua) eta "nomos" (izena) litzateke itzulpena; hortaz, toponimoa leku baten izena da eta elementu garrantzitsua da toki hori aurkitzeko eta identifikatzeko. Hori ez ezik, ukaezina da gure hizkuntzari buruzko informazio ugari eskaintzen digula, Etxarri Aranatzi dagokionez, euskaraz gain, historiaz, kulturaz eta gizarteaz ere gauza asko argitzen dizkigu. Dena den, Euskaltzaindiaren hiztegia oinarri harturik, toponimia eskualde edo hizkuntza bateko leku izenen multzoa, toki izendegia gisa definitzen du.

Leku izenari esker, elementu geografiko baten kokapena lor daiteke. Bestalde, gure tradizio paregabearekin jarraituz, esaera zahar honek bikain laburtzen du txostena: "Izena duen guztia omen da." 2013an Etxarri Aranazko Udalak Toponimia Batzordea sortu zuen eta hauek herriko baso, mendi, larre, soro, partzelaria eta txoko ezberdinetako izenen bila hasi ziren. Toponimiak, gainera, kultura, ondare eta hizkuntza-balio aparta du, eta, horregatik, 2007an UNESCOk gizateriaren ondare immaterialtzat hartu zuen. Leku-izenak gure arbasoek transmititutako adierazpen herrikoiak dira, eta gure herrietan bizi diren eta bizi ziren pertsonen bizitza, nortasuna eta ezaugarriak islatzen dituzte. Gainera, bertako historia, orografia, fauna eta flora nolakoa zen esaten digute, besteak beste. Hortaz, ondare eta hizkuntza-balio handiko lekukotasun biziak dira. Hau horrela izanik, horietako izen bakoitza ondare aberasgarritzat hartu beharra daukagu, altxor gisa tratatuz.

Nabarmendu beharra dago gaur egun toponimia geolokalizatuak interes berezia hartzen duela aisialdian eta naturan egiten den ariketa fisikoan, hala nola, mendi-martxak, trekkingak, trailak, txangoak, txirrindula irteerak, ginkana didaktikoak, jolasak eta abar. Hau horrela izanik, landuko ditudan bi disziplinen elkarketak, hots, gorputz hezkuntzak eta toponimiaren ezagutzak, jardueren balioa biderkatu egiten du, eta oso arlo aproposa suerta liteke hurrekin lantzeko.

*"Izena duen guziak izana baldin badu,
etxarriarrok bagara.*

Izan ginen, bagara eta izango gara."

Eneka Maiz Ulaiar, Etxarri Aranazko Toponimia Batzordeko kide eta herriko alkate
2015-2019 legealdian.

Atal honekin amaitu baino lehen, egindako lan guztiagatik eta eskainitako informazio guztiagatik nire eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiot Eneka Maizi, lan hau ez baitzen berdina izango zuk eskainitako denbora guztiagatik.

5.4.1. Toponimoen informazioa

Toponimo gehienak hitz konposatuak izan ohi dira, beraz, osagai bat baino gehiago dituztenak; hauek izenez, izenondo, izenlagunez, aditez, mugatzailez... osaturik egon daitezke. Beste batzuetan, gainera, esaldi oso bat eratzeko gai direnak ere badaudelarik. Hala eta guztiz ere, gerta daiteke horietako guztiak antzematea zaila suertatzea, eta, hortaz, soilik osagaietako batzuk ulertzea. Hau horrela izanik, egoera ezberdin hauek landu ditu Jose Luis Erdozia Mauleonek Etxarri Aranazko toponimia aztertzerako momentuan.

Lehenik eta behin, argi izan behar dugu toponimo guztien osagaiak eta esanahiak jakitea ezinezkoa dela, hortaz, batzuetan soilik osagai bakarraren jatorria edukiko dugula. Era berean, euskalkiaren ezaugarriak eta fonetismoak kontuan harturik, leku izenen bilakaera eragin dute. Bestalde, toponimo berdina izanagatik ere, osagaiek interpretazio ezberdinak onar ditzakete; hortaz, teoria anitzak eduki ditzakegu hauen jatorria zein den argitzeko. Ildo beretik jarraituz, leku izen berdinari era ezberdinetan deitzeko aukera ere badagoela jakitea beharrezkoa da. Azkenik, -de(gi) eta (-tegi) atzizkiak fitonimoak, hau da, zuhaitz eta sastraka mota ezberdinez beteriko lekuak adierazten ditu.

5.4.2. Etxarrieraren ezaugarriak

Toponimoak ezagutzeko kontuan hartu beharreko zenbait datu landu eta gero, Etxarri Aranazko euskalkiaren ezaugarrietako batzuk aurkeztuko ditut; izan ere, ezinbestekoa da hau ondo ezagutzea ondorengo proposamen didaktikoan landuko diren leku izenen datuak ulertzeko. Hala eta guztiz ere, ukaezina da euskalkiak historian zehar aldaketak jasan dituela, hortaz, honen islada toponimoetaraino ere iritsi da eta hauetako asko eta askok aldaketak edota birformulazioak pairatu dituzte. Besterik gabe, hona hemen Jose Luis Erdozia Mauleonek (2019) etxarriarrari identifikatutako ezaugarri bereizgarrienak edota nagusienak:

Bokalismoari dagokionez, lexemen azkeneko bokalari -a mugatzailea gehitzerakoan honako aldaketak ematen dira gure herriaren euskalkian:

- -e+ -a= -ie Adibidez: Sarea→Sarie
- -i+ -a= -iye Saskia→Saskiye
- -o+ -a= -ue Zuloa→Zulue
- -u+ -a= -ube Dirua→Dirube

Bestalde, hitz baten barnean e bokalari kontsonanteak eta o bokalak jarraitzen diotenean -io- diptongoa sortzen da. Esate baterako, behorra erabiliz orde, biorra darabilgu.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Era berean, -o bokalarekin bukatzen diren hitzei atzizki bat gehitzean, bokal hori -a bihurtzen da. Kasu, Fago + tegia = Fagadegia.

Etxarriarraren kontsonantismoari eutsita, hauen arteko alternantziak egiteko joera daukagu. Esate baterako, j hizkiarekin hasten diren hitzak f -ren ordezkariak trukatu ditugu; adibidez, Joan beharrean, Fan darabilgu. Era berean, b/p/f kontsonanteen arteko txandaketak egiteko joera ere daukagu; pagoari fagoa deituz.

Kontsonanteen berezitasunekin jarraituz, zenbaitetan hauek deuseztatzen ditugu, beste batera esanda, kontsonanteen arteko elipsia burutzen dugu; hala nola, zubiari zuye, Urdinbegiri Urdinbei edota Oporori Opoo deituz.

5.5. Proposamen didaktikoa eta curriculuma

Atal honetan leku izenen lanaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Curriculumaren arteko erlazioa azalduko da; izan ere, Lehen Hezkuntzarako prestatu den proposamen didaktikoa izanik, Foru Dekretuan agertzen diren zenbait atal garatzea ezinbestekoa da.

Lehenik eta behin, toponimoak landuko diren proposamen didaktikoan zehar curriculumeko 10. artikuluan aipatutako funtsezko kompetentzietatik komunikazioarena, digitala, pertsonala eta soziala, herritarra eta kulturala landuko dira.

Etapako helburu curricularrei dagokienez, bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutzea eta estimatzea; taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura sustatzea; gatazkak eta harremanak kudeatzea; Nafarroako Historia, hizkuntza, kultura eta ohiturak ezagutzea; osasuna balioetsiz gorputz anitzak errespetatzea eta indarkeria guztien aurkako jarrerak garatzea izango dira proposamen didaktikoan zehar landuko direnak.

Irakasgaiaren kompetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak elkarri lotuta daude. Hau horrela izanik, lehenengo, bigarren, hirugarren eta bosgarren kompetentzia espezifikoak izango dira garatuko direnak. Hortaz, hauek ebaluatzeko irizpideak curriculumean agertzen diren 1.1; 2.1 eta 2.2; 3.2 eta 5.1 izango dira.

Proposamen didaktikoaren eta Foru Dekretuan argitaratutako curriculumaren arteko erlazioa amaitzeko saioetan zehar landuko diren oinarriko jakintzak aurkeztuko dira (ikus 3.taula).

3.Taula: Curriculumeko oinarriko jakintzak. *67/2022 Foru Dekretua: Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Etapako Irakaskuntzen Curriculum* (moldatua)

OINARRIZKO JAKINTZEN BLOKEA	OINARRIZKO JAKINTZEN ZENBAKIA
Bizitza aktibo eta osasungarria	A.1.1; A.1.3; A.1.6 A.2.1; A.2.2

Jarduera fisikoaren antolaketa eta kudeaketa	B.2; B.5; B.6
Arazoak ebaztea mugimendu-egoeretan	C.1.1; C.1.2 C.2.2 C.3.1 C.4.1
Autoerregulazio emozionala eta interakzio soziala mugimendu-egoeretan	D.2; D.3; D.4
Mugimenduaren kulturaren adierazpenak	E.1
Ingurunearekiko interakzio efizientea eta jasangarria	F.1.1; F.1.3; F.1.4 F.2.1; F.2.4; F.2.5

5.6. Metodologia

Proposamen didaktikoaren ardatza ikaskuntza zerbitzuaren metodologia izanagatik ere, ukazina da beronen prozesu anitzetan zehar metodologia ezberdinak erabiltzea posible dela; izan ere, atal honetan ikasleen harremantze osasuntsuetan lagunduko duen KiVa metodologia finlandiarra eta saioetan zehar erabiliko diren beste zenbait metodologia landuko dira. Horretarako, “67/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculum” eta bertan agertzen den informazioa Sara Ashworth eta Muska Mosston (1986) autoreen sailkapenarekin osatuz, proposamen didaktiko honetan erabiliko diren metodologia anitzak aurkeztuko dira.

Metodo pedagogikoak: “Irakasleek, kontzienteki eta gogoeta baten ondorioz, antolatu eta planifikatzen dituzten estrategiak, prozedurak, teknikak eta ekintzak; elkarren artean koordinatuta, helburu dute ikasleen ikaskuntza bideratzea helburuak eta funtsezko kompetentziak nahiz kompetentzia espezifikoak lortzera.” dira (Nafarroako Gobernua, 2022, 3. Orr).

Gaur egungo hezkuntzaren nondik norakoak aintzat harturik, une bakoitzean egokiena izan daitekeen metodologia erabiltzen saiatuko naiz; hala eta guztiz ere, guztiak ikaskuntza zerbitzuaren erabilerara bideraturik daude. Honen harira, ikasleei euren kompetentziak eta autonomia garatzeko aukerak eskainiko zaizkie, horretarako, arazo edo egoera erreal bati erantzun posibleak eskaintzeko lanak burutuko dituztelarik.

5.6.1. Sara Ashworth eta Muska Mosston autoreen sailkapena

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Toponimia lantzeko sortutako proposamen didaktikoan, ikaskuntza zerbitzua metodologia nagusiaz gain, une ezberdinetan zehar arestian aipatutako Sara Ashworth eta Muska Mosston (1986) adituek proposatu zituzten metodologia hauek erabiliko dira: Aginte Zuzena, Zereginetan Oinarritutako Irakaskuntza, Elkarrenganako Irakaskuntza, Autoebaluaketa Irakaskuntza Estiloa, Inklusioaren Irakaskuntza Estiloa edota Aurkikuntza gidatua, besteak beste. Izan ere, lanketa hau dugu une honetan hedatuena, ondorioz, bertatik lortu ditut irakasleak erabil ditzakeen metodologia ezberdinak.

Aginte zuzena: Honen bitartez irakasleak ikasleei eskaintzen dion informazioa zuzena eta zehatza da, ondoren, berak eskainitako eredia imitatuz ikasleak irakaskuntza lortuko du (De Lucas, 2003, Saenz Lopez, 1997 eta Sanchez Bañuelos, 1986). Metodologia honetan, ikaslearen papera pasiboagoa da, izan ere, tutorearen edota arduradunaren ekintza motorra imitatzea da bere egitekoa.

Zereginetan oinarritutako estiloa: Irakaskuntza mota honetan ikaslearen autonomia eta parte hartzea aginte zuzenean baino handiagoa da. Estilo honi dagokionez, irakasleak ikasleei zereginak jartzen dizkie eta ikasleek egitekoa da hauei irtenbidea bilatzeko erantzun posibleak diseinatzea eta horiek aurrera eramatea. Honi esker, ikasleek ulertuko dute hartutako erabakiek ondorioak dituztela.

Talde txikiko lanketa: Andra Mari Ikastolako Gorputz Hezkuntzako saioetan aurrera eramaten den Orekan proiektuaren gako nagusietako bat talde txikiko lanketa denez, metodolgoia honek garrantzia izugarria edukiko du proposamen didaktiko guztian zehar. Metodologia honetan ikasleak talde txikitan banatuko ditugu jardueretan aritu daitezten. Egoera ideal batean talde heterogeneoak eta anitzak sortzea gomendagarria litzatekeen arren, jarduera fisikoa lantzeko talde homogeneoak sustatzea ere posiblea litzateke. Metodo honen bitartez, ikasleei rol ezberdinak banatzen zaizkie, beraien artean lanak burutu ditzaten eta, ondoren, elkarren artean lagun daitezten. Irakasleari dagokionez, gidatzaile eta behatzaile papera behar izango du, ikasleek sorturiko horretan lagunduz baina beraiek ikaskuntzaren protagonista direla bermatuz.

Sinektikan oinarritutako irakaskuntza estiloa: Ikaskuntza estilo honetan, izenak adierazten duen bezala, ikasleek euren sormena eta irudimena erabiliz, produktu bat sortu behar dute; esate baterako, dantza edo jolas ezberdinak.

Elkarrenganako irakaskuntza: Bizpahiruko taldeak osatuz irakaslearen lanak elkarlanean burutzean datza, orretarako, ikasleen arteko zuzenketak beharrezkoak direlarik. Era egokian burutuz gero, rolak txandakaturik doaz, bata lanean ari denean, gainontzekoek hura behatu eta beharrezkoak diren hobekuntzak edo iradokizunak proposatuko dizkio; ondoren, paperak aldatuko dituztelarik. Hau horrela izanik, ukalezina da feedbackak oso garrantzitsuak direla; alde batetik, ikasleek euren artean ematen dituztenak, baina baita

irakasleak eskaintzen dituenak ere; izan ere, tutorearen parte hartzea soilik iruzkinak egokiak izan daitezen ziurtatzera mugatzen da.

Ekoizpen dibergentea: Metodologia honek ikasleen gaitasun kognitiboa estimulatzeko du, izan ere, arazo edo galdera bati konponbide edo erantzun posible anitzak bilatu beharko dituzte.

Auto-ebaluaketa irakaskuntza estiloa: Izenak berak adierazten duen bezala, ikasleek euren burua ebaluatu beharko dute, horretarako, lanean ari diren heinean burutzen dituzten ariketetan, mugimenduetan edo jarreran, besteak beste, aztertu beharko dituztelarik. Metodologia honi esker, nork bere buru propioaren kontzientzia hartuko du, baita ikaskuntza prozesuan zehar izandako garapena ulertu ere bai. Era berean, gaztetxoek autonomia, independentzia eta autoestimua baloratzeko eta bakoitzak bere indarguneak edo ahulguneak ezagutzeko baliagarria da.

5.6.2. Taldekatzeak

Taldekatzeen gaia oso eztabaidatsua izan ohi da, izan ere, egoera idealetan heterogeneoak eta anitzak izango lirateke. Hala eta guztiz ere, proposamen didaktiko honetan talde homogeneoak egiteko aukera eskaini dakiok ikasleei, egoera fisiko antzekoa duten gaztetxoak elkartuz. Toponimia lantzeko unitate honetan taldeak lauzpabost lagunekoak izango dira; honi esker, kide guztiek lana egingo dutela baieztatuz eta talde-lanean rol ezberdinak edukiko dituztela ulertuz.

Ezinbestekoa suertatzen den lehenengo baldintza talde bakoitzean, gutxienez, bi etxarriar egotea da. Hau horrela izanik, herriko toponimiaren inguruko informazioa lortzeko familiako kideen laguntza behar dutenean errazagoa suertatuko zaie eta talde guztietan daturenbat edukiko dute.

KiVa metodologia erabiliko denez, bigarren baldintza finlandiar programarekin erlazionatuko genuke. Horretarako, ikasleei aldezturik eskaintako soziograman oinarriturik sortuko genituzke taldeak. Soziograman euren gertuko lagunak eta kideak izendatzeaz gain, jolasteko eta lanerako nor ez luketen aukeratuko jartzen dute umeei; hortaz, honi esker, ikasgelako kohesioa ezagutuko genuke eta hontan oinarrituz, taldeak sortuko genituzke.

Orain arteko bi baldintzak nahitaezkoak dira; baina orain eztabaidak sor ditzakeen aldaera bat proposatuko dut, irakasleak nahi duena hautatzeko aukera izango duelarik; ikasle bakoitzaren egoera fisikoa oinarri harturik talde heterogeneoak edo homogeneoak egitearena, hain zuzen ere.

Gaia landuko duen irakasleak egoera fisikoa oinarri harturik talde heterogeneoak egiteko aukera hautatuz gero, taldekideen artean aniztasun handia edukiko genuke; hortaz,

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

kirolariak direnak gainontzekoen erritmora egokitzen ikasi beharko dute. Hau horrela izanik, arestian proposatutako zenbait aldaera ezin izango dira aurrera eramanez, horietako batzuk egoera fisiko ona eskatzen baitute. Hala eta guztiz ere, hamaika aukera erabilgarri egin daitezke talde heterogeneoen bidez, eta, guztien bidez lortuko da aurreikusitako helburuak erdiestea, herriko toponimia ezagutzea eta jarduera fisikoa egitea, hain zuzen ere.

Nire aburuz, talde heterogeneoak eginez gero, egokiena litzateke lehiakortasuna proposatzen duten aldaerak alde batera uztera eta une oro talde guztiak elkarrekin ibiltzea; hau da, taldeka arituko diren arren, ikasleak ez sakabanatzea eta erritmo berdina mantentzea.

Erabaki hau hartuz gero, toponimoen inguruko informazio gehiago eskuratuko dutelakoan nago; baina, honen aurka, uste dut, egoera fisikoan hobekuntzak edukitzeko aukerak dezente murrizten direla. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra daukat fisikoki hobekuntza nabariak ez izan arren, bizi estilo sedentarioa daukaten ikasleak mugituko direla eta jarduera fisikoaren bidez ondo pasa dezaketela ulertuko dutela; hortaz, ideia ona litzateke horrela jokatzeko.

Gorputz Hezkuntzako irakasleak, aldiz, ikasleen egoera fisikoan oinarrituz talde homogeneousak egitea erabakitzen badu, argi dago ikasmaita berdinean egonagatik ere, ikaskideei aldaera anitzak eskaini behar zaizkiela. Niri dagokidanez, egoera hau aurreikusia dut eta toponimo berdinak ezagutuko dituzten arren, esfortzu fisiko handiagoa exijituko dien aldaera anitzak prestatu ditut. Era honetan jokatuz gero, ikasleen arteko lehiakortasuna nabaria izango da, hortaz, motibazioa handiagoa izango den arren, kontu handiz ibili beharko gara tutoreok; izan ere, lehiakortasuna ongi kudeatzea ezinbesteko da; hau egin ezean, kalte larriak ekar ditzake eta.

Taldekatzeen orduan aintzat eduki behar den beste baldintza bat ibilbideak zein jarduera fisikoren bitartez burutuko dituzten izan liteke. Hemen ere irakasleak erabaki anitzak har ditzake; esate baterako, eskuzabal jokatuz, ikasleen esku utzi oinez, korrika, irristailuekin edota txirrindulan egin nahi duten; edo, honen ordean, ibilbide bakoitza egiteko modua berak bertan hautatzea. Bigarren aukera erabakiz gero, irakaslean lana izango da ikasle guztiek aukera guztiak menperatzen dituztela eta horiek aurrera eramateko baliabideak dituztela ziurtatzea.

Beraz, taldekatzeak laburbilduz, lauzpabost lagunek osatutako herri ezberdinetako kideek osatutako talde txikiak sortuko dira proposamen didaktiko honetan. Gainera, irakasleak proiektua bere erara moldatzeko aukera daukanez, bere esku egongo da taldeak ikasleen egoera fisikoaren arabera heterogeneoak edota homogeneousak izatea.

5.6.3. KiVa

Proposamen didaktiko honen beste ardatz nagusietako bat ikasleen arteko harremana izango da; hau da, garrantzia handia emango diogu gazteen arteko erlazio osasuntsuari. Helburu hau erdiesteko KiVa metodologiaren bidez lan egitea hautatu dut, Andra Mari Ikastolan darabiltena delako eta ondo ezagutzen dudalako. KiVa Turkuko Unibertsitatean, hots, Finlandian, 2006an garatutako bullyingaren aurkako eta jazarpenari aurre egiteko programa da. Bere helburua erdiesteko, ikerketan eta froga ziurretan oinarritzen dena.

Metodologia honen eraginkortasuna begi bistakoa da, izan ere, Finlandia mailan egindako azterlan izugarri batek zientifikoki frogatu du jazarpen kasuak murrizteko oso baliagarria da; gainera, hasiera-hasieratik ondorio positiboak dituela frogaturik dago. Honen harira, beharrezkoa da aipatzea KiVaren indargunerik handiena prebentzioa dela; hala eta guztiz ere, jazarpen kasuak ematean esku-hartzeko eta jarraipena egiteko ere oso baliagarria da.

Jazarpena fenomeno talde baten gisa harturik, oinarria ikasleen jarreraren eragitea da, horretarako, gaztetxoaren jarreraren eta pertzepzioaren eraldaketa proposatzen duelarik.

Dagoeneko mundu osoan zehar hedaturik dago programa aberasgarri hau, are gehiago, azken datuen arabera, bullyingaren aurkako lanketa egiten duten programa guztien artean KiVa da aztertuen, beraz, gizartearangako eguneraketa egina dauka. Beste batera esanda, dagoeneko zaharkituta dauden programak gainditu dita finlandian programa honek.

KiVaren funtzionamenduari dagokionez, lehenik eta behin, bere helburua argi eta garbi ezagutzea gomendagarria da. Arestian esan dudana bezala, bullyingaren aurkako programa da, baina helburu nagusia gaitz honi aurrea hartzea da. Dena den, jazarpen kasuak eman eta gero programak ere funtziona dezake, arazo egoera hauetan eraginkortasunez aurre eginez. KiVa argitaratu baino lehen, ondoren bere oinarriak izango ziren ikerketa sakonak egin zituzten denbora luzean zehar jazarpenaren eta honen mekanismoaren inguruan. Gero, lan sakon hau egin eta gero, programaren hiru elementu nagusiak edota ardatzak finkatu zituztelarik: aurrea hartzea, esku hartzea eta jarraipena egitea, hain zuzen ere.

Aurrea hartzea: Ardatz honen helburu nagusia bullying kasuak ekiditea da. Horretarako zenbait ekintza ezberdinak proposatzen dituztelarik; hala nola, prebentzio-ekintzak, ikasleentzako eskolak, online jokoak edota KiVa curriculumak. Prozesu horiek ikasle guztiei zuzenduta daude eta euren helburua jazarpenari aurrea hartzea da. Aipatu beharra dago neurri horiek direla KiVa egituratzen dutenak.

Esku hartzea: Bigarren ardatz honetan bullyingari aurre egiteko tresnak aurkeztuko ditut. Arestian esan dudana bezala, programaren helburua aurrea hartzea da; hala eta guztiz

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

ere, dagoeneko jada bullyinga eman denean ere eraginkortasunez esku hartzeko urratsak aurkezten dira hemen. Horiek guztiak jazarpen kasuetan inplikaturako haur eta nerabeei zuzenduta daude; era berean, ikastetxeei eta ikasleei arazoari amaiera ematera bideraturako tresnak eskaintzea da egitekoa.

Urteroko jarraipena: KiVa programaren azken ardatza jarraipena litzateke; horretarako, ikastetxeetan egoeraren berri izateko tresnak eskaintzen dituelarik. Horretarako, ikasleen zein langileen artean, urtero egiten dira online inkestak. Behin hauek eskaintutako informazioa aztertu eta gero, lortutako iruzkinen bitartez, ikastetxeek bullyingaren aurka egiten ari diren lana hobetzeko moduak lortuko dutelarik. Era berean, ikasleek ulertu behar dute irakasleak laguntzeko daudela eta behar dutenean laguntza eska diezaieketela, horretarako, konfiantza bidirekzionala beharrezkoa delarik. Azkenik, irakasleei dagokienez, jarraipen bilerak egitea gomendagarria da; bai talde guztiarekin, baita inplikaturata dauden gaztetxoekin banaka ere, informazio gehiago eskuratzeko, hain zuzen ere.

Andra Mari Ikastola duela hamaika urte sartu zen KiVa programan, bere ikasleei erlazio sozial osasuntsuak eskaintzeko eta ikastetxeko giro goxoa eta ongizatea bermatzeko. Ikastolatik garrantzia handia eskaintzen zaio KiVari eta horretarako berezko talde bat sortu dute, hau da, irakasle batzuk jazarpenaren arloan elkarlanean aritzen dira ikasleekin esku hartze ezberdinak eginez. Programaren eraginkortasuna bermatzeko hiru oinarri nagusi ezberdintzen dira Andra Mari Ikastolan; alegia, ikastetxeko kide bakoitza oinarri bat delarik. Hau horrela izanik, ikasleengan, irakasleengan eta familiengan zentratzen da. Gaztetxoekin aurrera eramaten den lana, batik bat, emozionala da, arlo honetan indartuz eta giza baloreak barneratuz; bigarrenei metodologia egokiak eskaintzen zaizkie, eta, azkenekoei, jazarpenaren inguruko informazio eta egoera zehatzak ahalbideratzen zaizkie. Laburbilduz, KiVa, ikastetxearen eta familien arteko elkarrizketan oinarritzen da. Azkenik, garrantzitsua da aipatzea Andra Mari Ikastolako ikasleek, euren Tutoretza saioetan KiVa lantzen dutela; horretarako, KiVa txokoak eta guzti ezarrita dituztelarik. Bertan, garrantzia handia ematen zaio sentimenduei, baita talde lanari eta inor ere ez ez baztertzeari.

Behin Gorputz Hezkuntzako saioetan erabiltzen diren metodologia nagusienak aurkeztu eta gero, aipatu beharra dago ez dela irakaskuntza estilo perfekturik existitzen, horren ordez, irakasleak une bakoitzean lortu nahi duen helburua erdiesteko aproposena erabiltzea da gomendagarriena. Hortaz, saio batean bertan, metodologia ezberdinak erabiltzeko aukera daukagu irakasleok, eta hortan datza, hain justu, irakaskuntzaren aberasgarritasunak, aniztasunean, alegia.

5.6.4. Aniztasunari arreta

Toponimoen proposamen didaktiko hau Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin aurrera eramatea aurreikusi denez, hogeita hamaika ikasle anitzentzat moldatua dago. Hau horrela izanik, gauza asko hartu behar izan dira kontuan; hala nola, ibilbideak egiteko momentuan ikasleren batek mugitzeko arazoak edukitzea, hiperaktibitatea edota bestelako nahasmenduak.

Egoera hauei aurre egiteko, lehenik eta behin, arretaren nahasmendua eta hiperaktibitatea daukan ikasleari eskaini beharreko berariazko moldaketak azalduko ditut. Saio teorikoetan ez da aparteko aldaketarik egingo, besterik gabe, kontuan hartu behar dugu kanpo estimuluetatik urrun egon dadin eta bere arreta bereganatu dezaketen objektuak ahalik eta berandueneren eskaintzea. Esate baterako, proiektagailuan irudiak soilik ahozko azalpenak amaitu eta gero isladatzea eta liburuak edota argazkiak azalpen guztien ondoren ematea. Era berean, taldekatzeak egiterako orduan, egoera fisiko onean dagoen talde batean sartuko dugu; honi esker, bere gorputzak behar duen mugimendu guztia egiteko aukera eskainiko diogu. Azkenik, ordenagailuak, mugikorak eta erlojuak ere ahalik eta berandueneren emango zaizkio, bere arreta une orotan guregan edukitzeko.

Mugitzeko zailtasunak dauzkan ikaslea muleten laguntzaren bidez lekualdatzen da, hortaz, gurpildun aulkia eskaintzeko aukera edukiko genuke. Hala eta guztiz ere, tamalez, baliabide hau erabili arren, ezingo ditu ibilbide guztiak burutu. Hortaz, lurzoru desegokiko irteeretan txirringulaz egiteko aukera eskainiko diogu. Era honetan burutzea ere ezinezkoa izanez gero, irteera birtuala burutuko luke. Hau da, bera etxean, liburutegian edota ikasgelan dagoen bitartean, bere taldekideek zuzeneko bideo dei bat egingo diote. Honi esker, leku izenak eta hauen ingurunea ikusiko lituzke; aldeztatik landutako informazioari zentzu praktikoa emanez.

5.7. Denboralizazioa

Etxarri Aranazko toponimia landuko dugun proposamen didaktiko hau ikasturtearen amaiera aldera lantzea litzateke aproposena. Alde batetik, ikastetxetik at denbora ugari igaroko dugunez, gomendagarriena litzateke eguraldi ona edukitzeko aukerak ahalik eta handienak izatea; hortaz, Sakanan klima euritsua daukagula jakinda, apirilaren amaieran edota maiatzaren hasieraren inguruan kokatzea proposatuko nuke. Gainera, honela eginez gero, Hartzabal toponimoak interes handia jasoko luke, bertan ezartzen den Meyetza zutik ikusiko luketeelako. Beste aldetik, toponimoekin hasi baino lehen, KiVa metodologia lantzea ere ezinbestekoa denez, egokiena litzateke kurtso hasieratik tutoretza saioetan finlandiar ereduari ekitea, eta, gero, behin jada harremantze osasuntsuak sustatu direla baieztatuta,

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

talde ezberdinekin lanean hasia. Honen harira, arestian aipatu bezala, Andra Mari Ikastolan KiVa metodologia bi astetik behin lantzen da, tutoretza saioetan, hain zuzen ere. Hori ez ezik, astean hiru egunez "Gune Irekiak" irakasgai ziklo ezberdinetako ikasleak elkarlanean aritzen direnez, dagoeneko elkarrekiko harremanak sendoak izango dira eta ez da aparteko arazorik izango ikasgela ezberdinetako kideekin batera egotea. Hori guztia gutxi balitz, ikasturtearen amaiera aldera eginez gero, ikasleen arteko harremanak ez ezik, irakasleekiko errespetua ere handiagoa litzateke, eta honek abantaila ikaragarriak ekarriko litzateke proposamen didaktikoari; hala nola, arazorenbat egotekotan tutorearengana heldur gabe joko lukete gatzetxoek, eta, era berean, irakasleek ikasleen arteko soziogramak ezagutuko dituztenez, taldekatzeak egiteko erraztasunak edukiko dituzte.

Denboralizazioarekin aurrera egin ahala, eguraldiaren aurreikuspenek gure egunak baldintzatuko dituztela argi dago; hala eta guztiz ere, aipatu nahiko nuke, ibilbide bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartzea ere ezinbestekoa dela eta irakaslearen egitekoa izango dela aste bakoitzean burutuko den ibilbidea hautatzea. Demagun, ibilaldia ostiralean egitea aurreikusia dagoela eta aurreko egunak euritsuak izan arren, egun horretarako ona datorrela. A proposena litzateke partzelarietako asfaltoan barrena dagoen ibilaldi bat egitea, mendian eta basoan lokatz handia egongo delako. Ildo beretik jarraituz, egun oso euritsu bat aurreikusita egonez gero, toponimoen kokapenak eta ezaugarri nagusiak ikasgela barruan landuko genituzke, ateri egotean bertaraino gerturatuz.

Kurtsoa aurreratuta egotean aurrera eramatearen beste arrazoietako bat ikasleen gaitasunen garapena da, oinarriko zenbait jakintza lantzea ezinbestekoa suertatuko baita proposamen didaktikoko ibilbideak burutzeko. Esate baterako, Haur Hezkuntzatik iritsi berriak diren ikasleekin irakurketa eta idazketa lantzea beharrezkoa izango da; era berean, helduagoekin planoen funtzionamendua barneratuta daukatela ziurtatzea ezinbestekoa izango da ondoren, ibilbideetan euren kasa ari direnean, galdu ez daitezela.

Laburbilduz, Etxarri Aranazko eguraldia, ikasleen arteko harremanak eta hauen garapena oinarri harturik, egokiena litzateke herriko toponimia lantzeko proposamen didaktiko hau kurtsoaren amaiera aldera lantzea.

5.8. Toponimoen proposamen didaktikoaren faseak

Marko teorikoan esan bezala, ikaskuntza zerbitzua aurrera eramateko urrats zehatz batzuk jarraitu behar dira; dena den, autore ezberdinek iritzi anitzak dituzten arren, toponimoak lantzeko proposamen didaktikoaren sorrerarako María Nieves Tapiaren hiru faseetan oinarrituko gara, diagnostikoa eta planifikazioa, proiektuaren gauzatzea, ebaluazioa eta sistematizazio finala (Tapia, 2006). Hala eta guztiz ere, autoreak berak

proposatutako aurrekaria ere aintzat hartuko dugu, zeinetan, besteak beste, motibazioa eta jakin mina pizten diren.

5.8.1. Aurrekaria

Tapiak aurkeztutako hiru faseetan murgildu baino lehen egin beharreko lanak sartuko lirateke hemen, hala nola, ikaskuntza zerbitzua terminoa ikasleei ezagutaraztea, motibazioa eta jakin mina piztea edota euren parte hartzearen garrantziaz jabetzea. Fase hau jarraian azalduko den 0. saioan burutuko genuke, izan ere, moskeo kanpaina baten bitartez ikasleen jakin mina sortzearekin batera, lanerako motibazioa sustatuko dugu. Horretarako, lan litiko ezberdinen irudiak ikastetxean zehar ipiniko ditugu, euren arteko elkarrizketak eta eztabaidak sustatzeko asmoz; honi esker, ea zenbateraino dakiten ikusiko dugu. Bestalde, herriko udaletxearekin harremanetan jartzea egokia litzateke, elkarlanean arituko baigara proiektuak iraungo duen denbora guztian zehar.

5.8.2. Diagnostikoa eta planifikazioa

Fase honetan errealitaterako hurbilketa egingo dugu, beste batera esanda, arazoaren diagnostikoa eta proiektuaren planteamendua gauzatuko dira. Fase aurrekarian egindako moskeo kanpainari eta familiako kideei zein bestelako senideei burututako elkarrizketei esker, ikasleak ohartuko dira herrian arazo larri bat dagoela, gazteek ez dituztela bertako leku izen propioak eta herriko ondarea ezagutzen, izan ere, toponimoak kokatzeko zailtasunak izango dituzte, hortaz, altxor hau desagertzeko arriskua dagoela. Argi dago ondorio honetara ezin direla ikasleak euren kasa iritsi, baina irakaslearen gidari lanari esker, ondo bideratuz gero, egoeraz jabetuko dira eta hura iraultzeko motibazioa sortuko da. Helburu hau erdiesteko, ikasgelako elkarrizketak eta hausnarketak ezinbestekoak suertatuko dira.

Behin arazoa zein den ulertu eta gero, proiektuaren planteamendua iritsiko litzateke. Horretarako, lehenik eta behin, ikasleak talde txikitik jarriko dira eta baliabide ezberdinetan arakatu beharko dute, ikasgelara leku izenen informazioa ekartzeko, hala nola, kokapena, izenaren jatorria edota adierazpena. Diagnostikoaren eta planifikazioaren fase hau 0. eta 1. saioetan zehar landuko da.

Laburbilduz, lehenengo fasean arazoa ezagutu, hau da, herriko ondarearen arrisku egoeraz jabetu eta leku izenen informazioa landuko genuke.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

5.8.3. Proiektuaren gauzatzea

Fase honetan aurretik planteatutako proiektua aurrera eramango genuke, beste batera esanda, hemen egongo litzateke proiektuaren mamia. Helburu hau erdiesteko, saioen atalean aurkezten den informazioa landuko litzateke, hau da, ikasgela barruko lan teorikoa; baina baita ibilbide toponimiko ezberdinak ere. Hauetan, saio teorikoetan landutakoa errealitatera eramango genuke, jasotako informazioa hobeto ulertzeko eta guztia barneratzeko. Esate baterako, ikasgelan landutako leku izen baten informazio teorikoari zentzu praktikoa emango genioke, bertaraino gerturatuz, testuingurua aztertuz eta izenaren osagaiak ulertuz. Ondoren guztia ondo azaltzen den arren, taldekatzeen garrantzia, familien inplikazioa eta gizarteari eskaintzen zaizkion onurak azpimarratu nahiko nituzke, izan ere, ikaskuntza zerbitzua erabiltzen den heinean, horiek guztiak ezinbesteko ezaugarriak bihurtzen dira. Proiektuaren gauzatzea lantzeko saio ezberdinak beharko dira, horiek jarraian azalduko diren 2. saiotik ondorengo saioetara bitarteko orduetan landuko dira. Gainera, aipatu beharra dago, ikasgela barruko saioak ez ezik, eranskinen ataletan aurkezten diren ibilbideak ere fase honetan kokatzen direla.

5.8.4. Ebaluazioa eta sistematizazio finala

Proiektuari itxiera emateko unea litzateke hau, horretarako, darabilgun metodologia nagusia, hots, ikaskuntza zerbitzua, kontuan hartuta, argi dago gizarteari onurak eskaini beharko dizkiogula. Gure kasuan, arazoa ondarearen galeraren arrisku egoera dela jakinda, hau berpizteko ahaleginak eta lanak lirateke. Horretarako, ikasleek elkarlanean aritutako erakundeari, hots, udaletxeari, herriko mapa toponimikoa eskaintzeaz gain, hauek ezagutzeko ibilbideak burutuko dituzte, nahi duen herritar oro gerturatu daitekeelarik. Hori ez ezik, ikasleek egindako lanaren errekonozimendua eta aitortza jaso behar dutenez, ospakizun formal bat burutuko da udaletxean, honi esker, tankera berdintsuko proiektuak egiten jarraitzeko motibazioa ere sentituko dute gaztetxoek. Azken fase honen mamia 5.10.5. amaierako proiektua-herriari eskaintza atalean sakonki azaltzen delarik.

Ebaluazioari dagokionez, jarduera batean parte hartzaileek egin dutena ezagutzeko prozesua eta hobetzen lagunduko dituen feedback bat eskaintzea da. (Puig, 2015) Horretarako, 67/2022ko Foru Dekretuan, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumean, azaltzen diren Gorputz Hezkuntza irakasgaiko ebaluazio irizpideetan oinarrituz, errubrika erabiliko da.

Lehenik eta behin, curriculumean agertzen den bezala, etapa honetan zehar irakasgaiaren oinarritzko erronketariko bat ikasleen artean bizimodu aktiboa sustatzea da. Honi esker, ohitura osasuntsuak finkatzeko eta euren bizitzan zehar era berean jokatzeke.

Irakasgaiaren lehen kompetentzia espezifikoari dagokionez, bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzea eta, horretarako, jarduera fisiko, ludiko eta kirolekoetan erregularitasunez aritzea, osasun fisikoa, mentala eta soziala sustatzen duten portaerak hartzea, bai eta norberaren eta taldearen erantzukizun-neurriak ere mugimenduaren praktikan, ongizatea lortzen lagunduko duten jarduera fisiko sistematikoko ohiturak barneratzeko eta integratzeko. (67/2022 Foru Dekretua: 45). Berariazko gaitasun hau ebaluatzeko, Foru Komunitateko Curriculumean oinarrituta, proposamen didaktikorako honako ebaluazio irizpideak proposatzen dira. (ikus 4. taula)

4.Taula: 1. Kompetentzia espezifikoaren ebaluazio irizpideak. 67/2022 Foru Dekretua: Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Etapako Irakaskuntzen Curriculum. (moldatua)

<i>HIRUGARREN ZIKLOA</i>
Jarduera fisikoak maila fisikoan eta mentalean dituen ondorio onuragarriak zerrendatzea, eguneroko bizitzan integratu aurretiko urrats gisa.

Bigarren gaitasun berariazkoari eutsita, egokitzea gorputz-eskemari dagozkion elementuak, gaitasun fisikoak, pertzepzio-gaitasunak eta gaitasun motorrak eta koordinaziokoak, bai eta trebetasun eta abilezia motorrak ere, barne-logikarekin eta hainbat egoeratako helburuekin bat datozen pertzepzio-, erabaki- eta gauzatze-prozesuak aplikatuta, eguneroko bizitzako testuinguruetan helburu bat baino gehiago dituzten mugimendu proiektuen eta praktiken eskaerei erantzuteko (67/2022 Foru Dekretua: 46). Ildo beretik jarraituz, honako hauek lirarteke probetxuzko ebaluazio irizpideak. (ikus 5. taula)

5.Taula: 2.Kompetentzia espezifikoaren ebaluazioa irizpidea. 67/2022 Foru Dekretua: Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Etapako Irakaskuntzen Curriculum. (moldatua)

<i>HIRUGARREN ZIKLOA</i>
Bakarkako, lankidetzako edo elkarlaneko mugimendu-proiektuak eraikitzea, horien helburuak definituz, ekintzak sekuentziatuz, prozesuan aldaketak eginez, beharrezkoa bada, kalitatezko mugimendu-produkzioak sortzea, eta betetako prozesura eta lortutako emaitzara zenbateraino egokitzen diren baloratzea
Jolas-egoeretan, joko aldatuetan eta kirol-jardueretan erabakimenezko oinarritzko

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

printzipioak hautatu eta aplikatzea, aurrerapenetik abiatuta, eta mugimendu helburuen eta bakarkako, lankidetzako, oposizioko eta elkarlan-oposizioko egoeren barne-logikaren ondoriozko eskarrietara egokitzea, jardun-testuinguru errealetan edo simulatuetan, eta lortutako irtenbideei buruz gogoeta egitea.

Irakasgaiaren hirugarren konpetentzia espezifikoa arauak errespetatzearekin erlazionatuta dago; izan ere, autoerregulazio- eta interakzio-prozesuak garatzea mugimendu-praktikaren esparruan, jarrera enpatikoz eta inklusiboz, trebetasun sozialak eta lankidetzako, errespetuko, talde-laneko eta kiroltasuneko jarrerak erabiliz, parte-hartzaileen desberdintasun etniko-kulturalak, sozialak, generokoak eta trebetasunekoak alde batera utzita, parte hartzen den espazioetan elkarbizitzan eta konpromiso etikoan laguntzeko (67/2022 Foru Dekretua: 47). Hau horrela izanik, curriculumean oinarrituz, ebaluazio irizpidea hauek erabiliko dira (ikus 6. taula).

6.Taula: 3.Konpetentzia espezifikoaren ebaluazioa irizpidea. 67/2022 Foru Dekretua: Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Etapako Irakaskuntzen Curriculum. (moldatua)

HIRUGARREN ZIKLOA

Adostutako arauak eta joko-arauak onartu, errespetatu eta betetzea, eta kiroltasunaren eta joko garbiaren parametroetatik jardutea, parte-hartzaileen (taldekideak, aurkariak, epaileak edo ikusleak) jarduna aintzat hartuta

Ebaluazio irizpideekin amaitzeko, curriculumeko bosgarren berariazko gaitasuna, hainbat ingurune natural eta hiri-ingurune mugimenduaren praktikarako testuinguru gisa baloratzea, haiekin interakzioan aritzea eta ingurune horien kontserbazioak jasangarritasunaren ikuspegitik duen garrantzia ulertzea; jokoetan, jarduera fisikoetan eta kirol jardueretan erantzukizun indibidualeko neurriak hartzea, praktika efizientea eta ingurunearekiko errespetuzkoa izan dadin, eta ingurunea zaintzen eta hobetzen parte hartzeko, (67/2022 Foru Dekretua: 49) garatuko da. Honi dagokionez, honakoa litzateke bere ebaluazio irizpidea (ikus 7. taula).

7.Taula: 5.Konpetentzia espezifikoaren ebaluazioa irizpidea. 67/2022 Foru Dekretua: Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Etapako Irakaskuntzen Curriculum.




HIRUGARREN ZIKLOA

Mugimendu-ekintzak ingurune naturalari eta hiri inguruneari dagokien ziurgabetasunera

egokitzea lurreko nahiz uretako testuinguruetan, modu efiziente eta seguruan, jarduera fisikoa egiteko dituzten aukerak baloratzea eta ingurunearen ikuspegi ekojasangarri eta komunitariotik jardutea.

Hau horrela izanik, behin ebaluazio irizpideak zeintzuk diren aurkeztu eta gero, hau da, zer ebaluatuko den jakinda, nola ebaluatuko diren aipatuko da. Lan hau erdiesteko, arestian esan bezala, errubrika erabiliko da (ikus 8. taula). Errubrikan agertzen diren adierazleak sailkatzeko ez dira ez zenbakiak, ez koloreak, ezta bikain edo hobetu beharraren tankerako esapideak erabiliko; hauen ordeaz, emojiak erabiliko dira. Imanol Ibarrondo, coachingean aditua denaren liburuan oinarrituz, iruditxo hauen bitartez gazteek emozioak hobetu ulertzen dituzte, beste batera esanda, aurpegi hauei esker umeezko emozioak izendatzeko gaitasuna daukate. (Ibarrondo: 2015) Hala eta guztiz ere, Puigek autoebaluazioari eta koebaluazioari ematen dion garrantzian oinarrituta, ikasleek jasoko duten iruzkina ez da errubrika honetan soilik oinarrituko; horren aurka, nor bere burua nola ikusi duen ebaluatuz eta berdinen arteko elkarrizketetatik ere feedback aberatsak jasotzeko aukera eskainiko diegu. Honi esker, ikuspuntu ezberdinak ikusi eta gero, ikasteko eta hobetzeko baliabide gehiago edukiko dituzte ikasleek.

8.Taula: Proposamen didaktikoa ebaluatzeko errubrika.




			
<i>1.Ebaluazio irizpidea: Bizimodu aktiboa eta osasungarria.</i>	Gorputz Hezkuntzako saioetan zehar ez du ohitura aktiborik erakutsi; jarrera pasiboa nagusitu da.	Jarrera pasiboa edukitzeagatik ere, gustoko dituen jarduera fisikoetan aktiboki parte hartu du.	Parte hartze aktiboa erakutsi du eta honen garrantziaz jabetu da, barneratu du mugimendua ezinbestekoa dela.
<i>2.Ebaluazio irizpidea: Lanerako jarrera.</i>	Lanerako jarrera disruptiboak nagusitu dira eta lanean hasteko irakaslearen laguntzaz baliatzen da. Ez du bere kasa lanean hasterako ohiturarik. Bestalde, talde lanean aritzeko zailtasunak dauzka (gainontzekoekin elkarlanean aritzeko, iritzi ezberdinak	Lanerako jarrera ona den arren, lan indibidualerako joera dauka. Zailtasunak dauzka talde lanean ekiteko.	Lanerako jarrera egokia eta lan indibidualean zein talde lanean eroso sentitzen da.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

	entzuteko eta onartzeko...)		
<i>3.Ebaluazio irizpidea: Jolas eta kirolen testuinguru anitzak onartu.</i>	Jolas eta kirolen testuinguru ezberdinak eskatzen dituzten erabaki hartzetan zailtasunak izan ohi ditu; nahasmenduz eta konfusioz jokatzeko du.	Erabaki egokiak hartzeko joera nagusitzen den arren, koordinazio nahasmenduak izaten ditu.	Testuinguru eta rol ezberdinak ulertu eta errespetatzen ditu; banaka, binaka, taldeka... ondo koordinatuz.
<i>4.Ebaluazio irizpidea: Arauak errespetatzea</i>	Arauekiko jokabide disruptiboa, hauek hautsiz eta proposatzen dituzten kideak irainduz.	Arauak betetzen dituen arren, keinu txarrak eta kexak edukitzen ditu.	Aldez aurretik adosturiko arau guztiak ondo errespetatu eta betetzen ditu.
<i>5.Ebaluazio irizpidea: Testuinguru naturalak</i>	Testuinguru naturalak ez errespetatzeaz gain, jarduera fisiko bakarria erabili du, gainontzekoak errefusatuz.	Testuinguru naturalak errespetatzen dituen arren, jarduera fisiko bakarria darabil hauek ezagutzeko; gainontzekoak errefusatuz.	Testuinguru natural guztietan eroso sentitzen da eta guztiak (ibai ertza, mendia...)errespetatu ditu jarduera fisiko anitzak erabiliz.

Arestian esan bezala, autoebaluazioari eta koebaluazioari ere garrantzia handia eskainiko zaio proposamen didaktiko honetan, izan ere, ebaluazio tresna hauei esker, alde batetik nork bere buruaren lana eta maila ulertuko dute; eta, beste aldetik, iritzi ezberdinak ikusteaz gain, eztabaida osasuntsuak sustatzeko aukera izango dute. Ildo beretik jarraituz, are gehiago ikasteko aukerak edukitzeaz gain, etorkizunerako hobekuntza proposamenak aurkezteko eta proiektuaren indarguneak eta ahuleziak detektatzeko aukera eskainiko dira. Autoebaluazioa egiteko, irakasleak hausnarketa fitxa bat banatuko du, bertan proiektuan zehar burututako lan ezberdinetan parte hartzaile bakoitzak bere emozioak izendatzeko horren aberasgarriak diren emojiak (Ibarrondo: 2015) erabiliko ditu (ikus 9.taula). Behin nork bere taula bete eta gero, galdera berdinak hitzez erantzuteko eskatuko diegu; honi esker, emozioei izena eta jatorria emango diegu.

9.Taula: Autoebaluazio fitxa

			
Nola sentitu naiz herriaren gabezia			

edo beharra identifikatzean? Honen berririk baneukan?			
Nola sentitu naiz bakarkako lanean?			
Nola sentitu naiz jarduera fisiko ezberdinak probatzen?			
Nola sentitu naiz taldekideekin burututako talde lanean?			
Nire taldekideak nola sentiarazi ditut?			
Nola sentitu naiz ibilbideetan zehar?			
Nola sentitu naiz herriari onurak eskaintzean?			

Autoebaluazioa egin eta gero, koebaluazioa burutuko genuke. Horretarako, batzar orokorrari esker, talde bakoitzak bere esperientzia plazaratuko luke, haien ustez proiektuaren indarguneak eta ahulguneak defendatuz. Hala eta guztiz ere, talderen batek iritzi ezberdinak edukiko balu, gainontzekoei hura luzatzeko eta ideia hori defendatzeko argudioak emango lituzke. Azken finean, iritzi ezberdinei esker ikasten baitugu.

5.9. Saioak

Kontuan izanik Etxarri Aranazko toponimia lantzearekin batera ikasleen arteko harreman osasuntsuak KiVa metodologiaren bitartez sustatuko direla, beharrezkoa izango da bi astetatik behin, tutoretza saioetan, eredu finlandiarra lantzea. Dagoeneko marko teorikoan KiVaren alderdi nagusienak aurkeztu ditudanez, oraingo honetan soilik KiVa saioen nondik norakoak azalduko ditut.

Finlandiatik iritsi den ereduari jarraituz, ikasleak ohartuko dira talde lanean aritzeak abantaila ikaragarriak eskaintzen dizkiola norbanakoari, eta, hori ez ezik, aurreiritziekin hausteko eta lagun berriak egiteko baliagarria da. Gainera, ikasleen alderdi afektiboa garatzeko ere baliagarria da, enpatia eta errespetua landuz. Helburu hori erdiesteko,

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

tutoretza saioetan ikasleen adinari egokitutako baliabide ezberdinak erabiliko dira, hala nola, gainontzeko kideen beharra daukatela ohartarazteko jolasak, bilera irekiak, hausnarketa saioak...

Bestalde, jazarpenaren aurkako programa honen eraginkortasuna gaitz honi aurrea hartzean handiagoa den arren, arazoan zehar esku hartzeko ere baliagarria da. Horretarako, Andra Mari Ikastolak KiVa taldea osatu du, hau da, metodologiaren nondik norakoak irakasleei azaltzeko ez ezik, ikastetxean bertan arazoak suertatuz gero esku hartzeko eta hauek konpontzeko. Saioak bi astetan behin lantzea aurreikusi den arren, beharrezkoa den une orotan egin daiteke; hau da, programa malgua eta irekia den heinean, aldaketak onartzen ditu. Tutoretza orduetako gaiarekin amaitzeko, aipatu beharra daukat ikasgela guztietan KiVa txokoa dagoela eta bertan saio ezberdinetan zehar adostutako arauak idazten dituztela ikasleek; hauek gogoratzeko eta kontuan hartzeko.

KiVa ez ezik, familien Andra Mari Ikastolarekiko pertenezia sentimendua indartu nahi denez, saio askotan gaztetxoek helduen laguntza beharko dute, hala nola, izenen zerrenda osatzeko edota hauek kokatzeko. Honi esker, ikastetxearekiko lotura sendotzeaz gain, herriarekiko atxikimendua ere izugarri garatuko da. Gainera, hori gutxi balitz, toponimoak bezalako ondare historiko baliotsu bat belaunaldiz-belaunaldi mantentzea baieztatuko dugu.

5.9.1. 0. Saioa

Proposamen didaktikoarekin hasi baino lehen, moskeo kanpaina bat antolatuko dugu Andra Mari Ikastolan zehar. Honen helburua ikasleen artean jakin nahia piztea da, horretarako, ikastetxeko pasabideetan zehar toponimo ezberdinen harriak adierazten dituzten harrien irudiak itsatsiko ditugu. Lan litiko hauek ezagunak suertatuko zaizkien ikasleak egongo diren arren, gaztetxo askok ez dituzte inoiz ere ez ikusi, hortaz, eztabaidak sortuko dira. 0. Saio honetan irakasleak ezin izango du inolako informaziorik eskaini, bere egitekoa ikasleen arteko elkarrizketak bideratzea izango baita. Tutorearen lana erdiesteko galdera ezberdinak proposatuko dizkie ikasleei, esate baterako, “Noizbait ikusi dituzue lan hauek? Zer izango dira? Zer adieraziko dute? Non aurki ditzakegu?”

Behin ikasleen artean kuriositatea somatu dugularik eta norbaitek harriak ikusi dituela esan eta gero, eztabaidaren bigarren urratsera mugituko ginbateke; hau da, toponimoen izenetara, hain zuzen ere. Hemen, berriro ere, irakasleak gidari lana izango du eta elkarrizketa leku izenetara bideratuko du, helburua erdiesteko, galdera anitzak egin ditzake. Hala nola, “Zuk ikusi zenuen harrian zer ipintzen zuen? Zer izango da hori? Egilearen izena ote da? Nik ezagutzen dudan harrian ere izen bat ageri da, zer esanahi edukiko du?”

Arestian aipatutako bi urrats hauek eman eta gero, taldekatzeak egiteaz gain, lana etxera eramango dute ikasleek, izan ere, Ikaskuntza Zerbitzua metodologia erabiliko dugula oinarri harturik, familien inplikazioa nabarmentzea ezinbestekoa da. Era honetan, gurasoei, aiton-amonei, izeba-osabei... galdetu eta gero, Etxarri Aranazko toponimoen izen eta kokapen ezberdinak eskatuko dizkiegu ikasleei. Taldekatzeen atalean esan bezala, ezinbestekoa izango da talde bakoitzean, gutxienez, bi etxarriar egotea; hauen familiako kideek herriko toponimiaren inguruko informazio gehiago edukiko baitute gainontzeko herrietako kideek baino.

Moskeo kanpainak era egokian funtzionatuz gero, ikasleen arteko motibazioa oso handia izango da eta lanari ekiteko irrikitan eta prest egongo dira. Dena den, egoera ezkorrak aurreikusiz, posiblea izango da etxarriarrak ez diren ikasleak desmotibatuta egotea. Hau gertatuz gero, argi utziko diegu toponimia lantzea derrigorrezkoa dela, gure lurraldearen ondare historikoa delako eta biziraun behar duen altxorra delako. Hori ez ezik, helburu hori erdiesteko ardura beraien gain dagoela adierazi behar diegu, lurraldearekiko lotura sendotzeko eta motibazioa pizteko. Era berean, azken proiektua landu ez diren toponimoak aurkeztea denez, beraien herriko ondarea Etxarri Aranatzerraino gerturatzeko aukera eskainiko diegu. Azkenik, argi utzi behar diegu toponimiaz gain, beste jomuga batzuk ere badauzkagula, hala nola, lagunekin ondo harremantzea eta jarduera fisikoa eginez egoera fisikoa hobetzea. Hortaz, irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio bidirekzionala sustatzea ezinbestekoa dela argi dago.

5.9.2. 1.Saioa

Aurkezpen saioaren ondoren lanean hasteko momentua dator. Lehenengo egunean ikasleei etxerako lan txiki bat bidali eta gero, hauek ikusteko momentua iritsi da, toponimo ezberdinen izena eta kokapena aurkeztea, hain zuzen ere. Saio honetan ikasleek, banan-banan, familiako kideek eskainitako izenak aurkeztuko dituzte; era honetan, guztien lana amankomunean jarriz, Etxarri Aranazko toponimoen zerrenda luze bat osatuko dugu. Hala eta guztiz ere, toponimo nagusiren bat faltatuz gero, irakasleak ere hura aurkezteko aukera izango du.

Behin zerrenda luze bat idatzi eta gero, taldeka jarriko lirarteke eta horiek Etxarri Aranazko mapan kokatzen ahaleginduko dira. Argi dago guztiak era egokian ipintzea ezinezkoa suertatuko zaiela, baita euren artean iritzi ezberdinak edukiko dituztela ere; baina errespetuz hitz eginda eta elkar lanari esker, gutxinaka-gutxinaka talde txikiko lanketa eta elkarrenganako irakaskuntza estiloa metodologiak erabiliko ditugu. Saio honetako familien egitekoa zerrendan agertzen diren izenak mapan kokatzea izango da; gero, talde bakoitzak berea aurkeztuko duelarik eta iritzi ezberdinak entzungo dituztelarik.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

5.9.3. 2. Saioa

Ikasgelan burutuko den saio honetan, aldez aurretik etxean egindako lana amankomunean jarriko dute ikasleek. Taldeka arituko diren arren, hasiera batean ekarpenak ikaskide guztientzat egingo dira; era honetan, talde guztiek abiapuntu berdina edukiko dutela baieztatuko dugu.

Saio hau aurrera eramateko, teknologia berrien erabilpena ezinbestekoa izango da; Etxarri Aranazko mapa pantailan irudikatuz, izenak banan-banan bertan ipintzen arituko garelako. Honetaz gain, behin ikasle guztiek euren kokapenak aurkeztu dituztela baieztatu eta gero, seigarren mailako taldeei Andra Marik Ikastolako eskura dituen Chrome-book bat eskainiko zaie, bertan lan ezberdinak egin ditzaten eta baliabide anitzetan informazioa arakatzeko. Lehen Hezkuntzako gaztetxoekin, berriz, irakaslearen ordenagailuan eta proiektagailuan arituko gara lanean; adibidez, leku ezberdinak Street View gailuarekin ikusiz, Google Earth erabiliz Etxarri Aranatz airetik ikusiz eta, azkenik, Nafarroako Administrazio Elektronikoak eskainitako Nafarroako Toponimia Ofizialaren maparekin jolastuz.

Behin Chrome Bookean aritu eta gero, Lehen Hezkuntzako helduenei aurretik elkarlanean sortutako leku izenen zerrendatik toponimo bat hautatzeko eskatuko diegu. Gure eginkizun hau egin eta gero, erabakitako toponimoaren informazio esanguratsua bilatu beharko dute, ondoren, gainontzeko ikasleei aurkezteko. Hala eta guztiz ere, ikasleei lana erraztealdera, irakasleak Urbijotzendentzuyeko toponimoaren adibide bat eskainiko die:

Ikasleei aurkeztuko zaien adibide bat: Lehenik eta behin, elkarrizketa hasteko eta zirikatze galderak luzatuko zaizkie: *Urbijotzendentzuyeko izena entzun eta gero, zer datorkizue burura? Izen luzea iruditzen zaizue? Zer esan nahiko du? Non kokatuko da? Ur hitzarekin hasten dela ikusita, ibaitik gertu egongo dela esango zenukete?* Galderak proposatu eta gero, toponimoa adierazten duen irudi bat erakutsiko dugu pantailan; eranskinetan txertatutako berdina, hain zuzen ere. Bertan, urarekin lotura duela argi ikusten da, baina are gehiago sakontzeak merezi du.

Behin toponimoa aurkeztu eta gero, ikasleenganako hausnarketa bilatuko da. Urarekiko lotura eta irudia ikusi eta gero, irudia handituko dugu, zubia erakutsiz. Orduan, irakasleak hartuko du hitza: *Ura eta zubia, ditugu ikusgai argazkian; zer izango ote da -zuyeko? Zuria esan nahiko du?* Momentu honetarako ikasle asko jabetuko dira Ur eta zuyeko errekarrekin lotuta daudela, baina -bijotzenden- aztertzea faltako zaie oraindik. Momentu honetan, irudia are gehiago zabalduko dugu, ahalik eta irudi panoramikoak erakusten dugun arte: *Erreka bat jaisten da hemendik, zubia ikusten dugu hemen... eta bigarren erreka bat. Bi erreka ditugu!* Ikasleei informazioa prozesatzeko tartetxo bat utzi eta gero, euren ikuspuntua eskatuko diegu; ea toponimoaren jatorriaren berri daukaten edo ez. Azkenik, argi

utziko diegu “Urbijotzendentzuyez” izenak, ur + bi + jotzen+ dituen+ zubia adierazten duela eta eurek hautatutako toponimoaren tankera berdintsuko lana burutu beharko dutela.

Lana zaila suertatzen zaiela ikusiz gero, Jose Luis Erdozia Mauleonen “*Etxarri Aranazko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala*” liburua eskainiko die irakasleak; bertatik informazio esanguratsua lortzeko. Hau horrela izanik, saio honetan ikasleekin teknologia berriak indartzen dituen gaitasuna lantzeaz gain, curriculumeko talde lanerako aztura eta hizkuntzarekiko pertenezia sentimendua garatuko ditugu.

5.9.4. Ondorengo saioak

Ikasgela barruan burutuko diren hurrengo saioak kalean egingo diren ibilbideek mugatuko dituzte; izan ere, hauetan zehar ikusiko ditugun toponimoak landuko ditugu. Beste batera esanda, toponimoak ikusi baino lehen, hauen ezaugarriak, kokapenak, esanahiak eta iruzkinak ikasgelan landuko ditugu. Lan hau erdiesteko, jarraian datorren “Ibilbideak” atalean egunero bistaratuko ditugun leku izenak eta hauen iruzkin bat zerrendatu ditut, era honetan, irakasleak egun bakoitzeko plana zein den jakingo du. Hori ez ezik, ibilbide bakoitzean posibleak diren aldaera ezberdinak eta banan-banako toponimoen ezinbesteko informazioa zein den ere adierazi ditut, hortaz, hauek burutu baino lehen ikasgelan landu beharrekoa ere argi dago.

5.9.5. Amaierako proiektua-Herriari eskaintza

Ikaskuntza zerbitzua metodologiaren ezaugarri nagusienetako bat burutzeko garaia da hau, gizarteari onura eskaintzea, hain zuzen ere. Horretarako, ikasle guztiek egindako lanak elkartuko dira, era honetan, herriari bere ondarearen biziraupena bermatuko diogu. Bestalde, ikusteko abstraktua den arren, herritarren osasun fisikoan ere onurak eskainiko ditugu, ibilbideak nahi duen ororentzat irekiak baitira.

Hala eta guztiz ere, herriari zabaldu baino lehen, ikaskideen arteko lana burutuko da. Bertan, talde bakoitzak guk proposatutako ibilbideen tankerako zerbait prestatu beharko du, hau da, kide guztien artean landu ez dugun toponimo bat hautatu eta gainontzekoei hura aurkezteko lantxo ezberdinak prestatu. Esate baterako, izenaren jatorria azaltzen duen informazioa eskaini, era ludikoan honen kokapenaren berri eman, aukera anitzeko galderak prestatu... Bestalde, posiblea izanez gero, egokia litzateke bertaraino gerturatzea eta ibilbide bat prestatzea. Era honetan, gerora herriari eskainiko diogun zerbitzuan ibilbide eta toponimo gehiago egongo dira.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da aipatzea, arestian esan bezala, amaierako proiektuko lanak ez duela zertan Etxarri Aranatzeko kokaturik egon behar; horren ordez, herri ezberdinetako toponimoak ere hautatu daitezke. Era honetan, proiektuak Ikastolako aniztasuna kontuan hartuko du eta bailarako herrietako biztanle guztiak integratuko ditu. Hau horrela izanik, ikasleak taldekatzerako orduan irakasleak bi aukera izango ditu; alde batetik, talde berdinak mantentzea eta horien artean ikasleek nahi duten herriko toponimo bat hautatu; edo, beste aldetik, gazteak euren bizilekuaren arabera taldekatzea. Bigarren aukera hau hartuz gero, proiektu aberasgarriago bat lortuko genukeelakoan nago, izan ere, Andra Mari Ikastolan herri aniztetasuko familiak daude, esate baterako, Bakaiku, Iturmendi, Arbizu edo Lakuntza, besteak beste; hortaz, oso aproposa litzateke gutxienez herri bakoitzeko talde bat lortzea, era honetan, bailarako toponimo ugari ezagutuko genituzkeelako. Gainera, era honetan jokatuz gero, ikasleek ez ezik, familiako kide guztiek euren ikastetxearekiko atxikimendu sentimendua indartuko lukete; beste herri batean bizitzeagatik ere, integraturik sentituko liratekeelako.

Irakasleari dagokionez, proiektuaren sormen lan honetan gidari lana egingo du, hau da, behin ikasleak taldekatu dituelarik eta lanean hasi direlarik hauek bideratzea izango da bere egitekoa. Azken finean, ikasleak garatzea eta era autonomoago batean lan egiten ikastea nahi baita.

Metodologiari eutsita, argi dago azken atal honetan bi izango direla erabiliko ditugun nagusiak, sinektikan oinarritutako irakaskuntza estiloa eta talde txikiko lanketa; dena den, ezin dezakegu Andra Mari Ikastolako Orekan proiektua ahaztu, izan ere, hau erdigune hartuta garatu baita proposamen didaktiko guztia.

Hala eta guztiz ere, amaierako proiektua bideratzen laguntzeko, Etxarri Aranazko zenbait leku izenen ezaugarriak eskainiko geniezke ikasleei; beti ere, kontuan harturik hauek baino askoz ere gehiago daudela eta nahi dutena libreki hautatu dezaketela. Izan ere, gaur egungo Etxarri Aranazko toponimia ofiziala oso ugaria da, 445 izen erregistraturekin, 288 toponimo nagusi eta 157 eratorririkin, hain zuzen ere, horiek guztiak Jose Luis Erdoziaren liburuan daude ikusgai daudelarik. Era berean, ikasleak lan egin ezinik ikusiz gero, bideratzeko aukera izango genuke, esate baterako, toponimoaren izenik esan gabe hauetako zenbaitetaraino gerturatuz: “Non ospatzen dugu Etxarrin San Kiriko erromeria?” “Nola deitzen da herriaren sorrerari oroigarri gisa dagoen zuhaitzaren eremua?” “Non kokatzen zen Etxarri Aranazko futbol zelai zaharra?” Era honetan, galdera errazak izanik, etxean familiaren laguntzaz toponimo gehiago ezagutzeko aukera izango lukete ikasleek.

Behin ikasleek euren sormen lana burutu dutelarik, gizarteari eskainiko zaion onurari forma ematen hasteko prest egongo lirateke. Ikaskuntza zerbitzuan oinarrituz, herriaren ondarearekin lotutako proposamen didaktiko honetan bi izango dira herriari eskainiko dizkiogun lanak. Alde batetik, ibilbide toponimikoak egiteko egun ezberdinak finkatu eta

gero, nahi duen pertsona orori bertan izena emateko aukera eskainiko genioke. Horretarako, herriko gune ezberdinetan, hala nola, tabernetan, ikastetxetan, gaztetxean, udaletxean edota pilotalekuan, kartel informatiboak jarriko genituzke lana azalduz eta ikastolako telefono zenbakia ipiniz, horrela, nahi duen orok bertara Whats App bat bidaliz izena emango luke. Ibilbide horietan ikasleak gidak ikasleak izango dira, eta leku izen ezberdinen izena emateaz gain, ikasgelan landutako informazio esanguratsuen hedatuko dute. Ildo beretik jarraituz, ibilbideek denboran luzez irauteko ideiarekin, kolore ezberdinekin markatuko genituzke. Honi esker, nahi duen orok nahi duen momentuan egiteko aukera izango luke, galtzeko inolako arriskurik gabe. Esate baterako, eranskinetan dauden ibilbideak erreferentziatzat harturik, lehenengoari kolore urdineko markak egingo geniozke, bigarrenari gorriak, hirugarrenari berdeak... eta horrela ibilbideak betirako egongo dira.

Bigarren onurarekin jarraituz, herriko toponimoak galtzen ari diren ondareak direla jakinda, hauek mapan kokatzearekin batera, Etxarriko Udalari eskainiko genioke, udaletxearen harreran jartzeko eta bertaraino gerturatzen den orok ondarearen berri edukitzeko. Lehen Hezkuntzako ikasleekin landu dugula kontuan harturik, bi dimentsiotako planoan burutuko genuke ekintza hau, hala ere, hiru dimentsiotan egiteko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak inplikatzeko posiblea litzateke. Hau eginez gero, Udalari herriaren maketa toponimiko eder bat eskainiko genioke.

5.10. Ospakizuna

Marko teorikoan azaldu bezala, Ikaskuntza Zerbitzuari amaiera emateko ospakizun bat egitea behar-beharrezkoa da, honi esker, gizarteari lana eskaintzeaz gain, ikasleek egindako lanaren errekonozimendua jasoko dute eta gogoz jarraitzeko motibatuko ditu. Proiektuari amaiera hamaika era ezberdinetan eman dakioke, dena den, Etxarri Aranzako toponimia lantzeko proposamen didaktiko honetarako euren amaierako proiektuak Udalari aurkeztearekin batera, udako oporretan horiek bertan burutuko ditugu. Hori gutxi balitz, euren lanak proposamen didaktiko honetan txertatuko genituzke, horrela, ikasleek ikusiko dute euren lanak aitortza jaso duela eta irakasleak beraiek egindako esfortzua baloratzen duela; ahalik eta bi aldean arteko lana maila berean jarri arte. Era honetan jokatzuz gero, argi dago proposamen didaktikoa proiektu bizia izango dela, eta une orotan aldaketak eta ideia gehigarriak txertatzeko prest dagoela. Erabaki hau hartzearen beste alde positibo bat Ikastolarekiko atxikimenduaren handitzea litzateke, izan ere, euren ideiak landuko direla ikustean, gaztetxoak harrotasunez beteko dira.

Herri bakoitzeko udalari euren lanak aurkeztean eta eskaintzean, aitortza ofiziala jasoko lukete, diploma eta guzti. Gainera, herri txikietakoz biztanleak izanik, ziur nago bertako turismoa sustatzeko proposak izango liratekeela eta horiek erabiltzeko aukera izango

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

luketeela. Bestalde, proposamen berria gure bailarako Guaixe astekarian argitaratuko genuke, ahalik eta hedadura gehien lor zezan eta gure oihartzuna ahalik eta urrutien iristeko.

Azkenik, hezkuntza, umeak, natura, ondare historikoa eta jarduera fisikoa maite ditudanez, talde guztien proposamenak errealitatera eramateko eta lan guztiak udako oporretan burutzeko konpromezua hartuko nuke. Ikasturtea amaitu baino lehen saioak aurrera eramateko egun bat adostuko genuke, gero, talde bakoitzari egokitutako egunean euren familiako kideen laguntza eskatuko genuelarik. Era honetan, ikasleek lanaren aitortza jasotzeaz gain, euren arteko harremanak bizirautea, ikastetxearekiko pertenezia sentimendua sustatzea, jarduera fisikoa egitea eta familien parte hartzea ahalbideratuko genituzke. Beste batera esanda, irakasleari lan eta denbora urria suposatuko liokeen zerbaitek, abantaila ikaragarriak ekarriko litzioke Ikastola familiari; hortaz, egin beharreko zerbait dela esango nuke.

6. ONDORIOAK

Lan hau egin eta gero, hezkuntzari eta, batik bat, ikaskuntza zerbitzuaren metodologiari buruzko zenbait ondoriotara iritsi naiz. Horretarako, arlo honetan espezialistak diren zenbait adituren artikulua akademiko anitz irakurri behar izan ditut; informazioa aztertzeko eta iritzi ezberdinak jasotzeko.

Lehenik eta behin, jakina den bezala, ikaskuntza zerbitzua metodologia berritzailea da; baina tamalez, gaur egun, oraindik ere, berrikuntzak ez dira ikastetxe guztietara iritsi eta hezkuntza tradizionala gainditu beharreko gaitza da. Eredu zaharkituan gelditu diren zentroek garrantzia handia ematen diote irakasle eta ikasleen bitarteko hierarkizazioari, hezitzailea gaztetxoan gainetik argi eta garbi ezarriz. Horren adibide dira, esate baterako, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikus ditzakegun ikasgelak. Hauetan, irakaslea ikasleen aurrean ezartzen da, bertatik bere ikasgaia irakatsiz. Hori gutxi balitz, ikasgelaren aurrealdean maila bat dago, honi esker, irakaslea ikasleak baino maila bat gorago dagoela erakutsiz. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra daukat, burututako graduan, Lehen Hezkuntzako Irakasletza Graduan, hain zuzen ere, hierarkizazio hori apurtzen erakutsi digutela eta urriak direla mailakatze hori mantentzen duten irakasleak. Zorionez, ikaskuntza zerbitzuak honen guztiaren aurka egiten du, eta autoebaluazioaz baliaturik ikasleek uler dezakete haien iritzia, irakaslearena bezain garrantzitsua dela (Puig, 2015). Honi esker, argi dago metodologia berritzaileak hierarkizazio bertikalari norabide horizontala ematen diola, parte hartzaile guztiak maila berean kokatuz.

Ondorioekin jarraituz, marko teorikoan esan bezala, ikaskuntza zerbitzua metodologia martxan jarri baino lehen, ikasleen interesetatik abiatuta, gizartearen behar edo

gabezia bat identifikatu behar dela jakina da. Hau horrela izanik, ukalezina da parte hartzaile guztien motibazioa izugarria izango dela; izan ere, euren auzo edo herriaren beharrari konponbidea emateak ikaragarri motibatuko ditu, hortaz, proiektuak iraungo duen denbora guztian zehar lanerako jarrera baikorra aurreikusten da. Hori guztia gutxi balitz, euren testuinguruarekiko kohesioa ere izugarri handituko du, berdinen arteko taldeak ez ezik, familiekiko eta ikastetxearekiko loturak eta atxikimendua indartuz.

Ondorioekin jarraituz, aipatu beharra dago ikaskuntza zerbitzua metodologiak talde lana sustatzen duela, izan ere, proiektua bere osotasunean taldeka egiteko prestatzen da (Battle: 2013). Hortaz, Nafarroako Foru Komunitateko curriculumean oinarrituz, taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura (67/2022 Foru Dekretua: 5) bultzatzen du, bertan aipatzen den etaparen helburuetako bat garatuz. Berdinen arteko kooperazioaz gain, elkarlana kanpo erakunde edo entitate batekin ere egin behar da; beste batera esanda, talde lana bi norabidetan ematen da; alde batetik, ikaskideekin, eta, beste aldetik, ikastetxetik at dagoen instituzio batekin. Hau horrela izanik, ukalezina da ikaskuntza zerbitzuaren bitartez ikasleak gaur egun horrenbeste erabiltzen den talde lanerako garatzen dituela.

Ikaskuntza zerbitzua eta curriculumaren arteko loturari eutsita, argi dago Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumak garatzeko baliagarria dela. Proposamen didaktiko honetan, Foru Dekretuan aipatzen diren kompetentzien artean komunikazioarena, digitala, pertsonala eta soziala, herritarra eta kulturala landuko dira (67/2022 Foru Dekretua: 7). Bestalde, curriculumeko 8. artikuluan ezartzen diren etaparen zenbait helburu ere garatuko dira, bizikidetzaren balioak eta arauak errespetatzea; taldeko zein banakako lanaren aztura; euskararen erabilpena; Historia eta Kulturaren ezagutza; kompetentzia digitalak; higiena eta osasuna balioestea eta era aktiboan bizitzea (67/2022 Foru Dekretua: 5-6). Hontan oinarriturik, proposamen didaktiko honetan zenbait arlo lantzen direnez, lantzeke dauden horiek beste proiektuekin garatuz gero, ukalezina da ikaskuntza zerbitzua aberasgarria dela eta ikasleak bere osotasunean garatzeko probetxuzkoa eta erabilgarria dela.

Laburbilduz, argi dago ikaskuntza zerbitzuaren metodologiak onura ikaragarriak arlo anitzetan dauzkala, hala nola, ikasleak akademikoki garatzen ditu curriculumak landuz, herritar bezala ere prestatzen ditu, talde lanean aritzen irakasten die, euren testuinguruarekiko atxikimendua sortzen du eta, azkenik, herriari edo auzoari gabezia edo arazo bat konpontzen laguntzen dio horretarako beharrezkoak diren onurak eskainiz. Hau horrela izanik, eta hau nire iritzia pertsonala besterik ez da, hezitzaileok ikaskuntza zerbitzua gehiagotan erabili beharreko metodologia da, jadanik aipatutako onurez gain, hezkuntza tradizionala behingoz gainditzeko baliabidea ere da eta.

Proposamen didaktikoaren oinarria ikaskuntza zerbitzua izanagatik ere, argi utzi nahi dut hau ez dela erabili beharreko metodologia bakarra, ezta perfektuena ere ez; baina

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

kontuan harturik ikasleen interesetatik abiatzen dela, oinarrizko zenbait jakintza biltzen dituela, talde lana sustatzen duela eta gizarteari onurak eskaintzen dizkiola, oso aberasgarria dela argi dago.

GALDERA IREKIAK

Atal honetan bi arlo nagusiren inguruko erantzunik gabeko galderak proposatuko ditut, alde batetik, ikaskuntza zerbitzuaren metodologiaren hausnarketara bideratutakoak, eta, beste alde batetik, proposamen didaktiko honek iradokitzen dizkidanak. Izan ere, gai berritzaile honetan sakonduz gero, beti sortzen dira ikuspuntu anitzeko eztabaida eta kezka berriak.

Ikaskuntza zerbitzua, dagoeneko argi dagoen bezala, ikasleek curriculuma garatzen duten bitartean burututako azterketa lan bati esker gizarteari arazoak konpontzeko bideak eskaintzen dizkion metodologia da. Proiektua gabezia horren analisisan hasten da eta hura konponduz amaitzen da; horretarako, erakunde edo entitate ezberdinekin elkarlanean aritzeaz gain, berdinen arteko elkarlana ere sustatzen da. Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma oinarri hartuta, argi dago etaparen helburuak, funtsezko konpetentziak, oinarrizko jakintzak eta ebaluazio irizpideak lantzeko probetxuzko metodologia dela. Hala eta guztiz ere, oso zaila suertatu zait ikaskuntza zerbitzua erabiliz programatutako ikasturte oso bat ikustea. Honen aurka, proiektu hau darabiltenek soilik gai bat, edo pare bat gehienez ere, lantzen dute metodologia honetan oinarrituz; gainontzekoetan hezkuntza tradizionala edo beste metodologiak erabiltzen dituztelarik. Honek guztiak buruhauste hauetara eraman nau: *Baina posiblea litzateke soilik ikaskuntza zerbitzuaren bitartez bidez funtzionatzea? Ikasturte guzti batean ikasleek horrenbeste interes ezberdin edukiko lituzkete? Curriculuma bere osotasunean lantzea posiblea litzateke?*

Ikaskuntza zerbitzuaren funtzionamenduarekin jarraituz, argi dago guztia martxan jarri baino lehen arazoak, beharrak edota gabeziak identifikatu beharko ditugula. Arestian curriculumaren eta ikasturte osoaren funtzionamenduaren inguruan kezkatu naiz, oraingo honetan, berriz, proiektuaren inguruko lehen urratsen hausnarketa luzatuko dut. Jakina den bezala, irakasleak gidari papera eduki beharko du, hau da, ikasleak lanean jarri eta hauek bideratu beharko ditu. Hori ez ezik, elkarlana egingo den erakundearekin ere harremanetan jartzeko laguntza eskainiko die gaztetxoei. Dena den, curriculumean adierazten dena aintzat harturik, "Helburu honekin: modu autonomoan balioestea." (67/2022 Foru Dekretua: 53) zalantzak sortzen zaizkit ikasleen autonomiaren inguruan. Ikaskuntza zerbitzuan zehar irakaslea bidelaguna izan behar dela azpimarratu dugu, hala ere, zenbait lanetan bere gain

uzten da ia guztia. Hau horrela izanik, ikasleen autonomiaren alde egin behar dugula jakinda, zaila ikusten dut autonomiaren eta gidari lanaren arteko muga ezartzea. Baliteke, irakaslearen arazoa identifikatzeko prozesuan gehiegizko laguntza eskaintzea, eta, hortaz, proiektua bere erara bideratzea; era berean, erakundeekin harremanetan jarri beharreko momentuan ere gehiegizko garrantzia ematearen arriskua legoke. Egoera hau konpontzeko ikaskuntza zerbitzuaren beste abantailetakoa bat probestu genezake, familien inplikazioa (Sanduzelai Ikastetxe Publikoa: 2022), hain zuzen ere. Senideek egindako lanari esker ere aurrerapen handiak egin ditzake proiektuak; dena dela, ikasleen autonomiaren garapena arriskuan legoke. Hortaz, honako galdera hauek egin dizkiot nire buruari, baina ez naiz hauek erantzuteko gai izan: *Ikasleak gai izango dira euren kasa arazoak identifikatzeko, erakundeekin harremanetan jartzeko, herriari onura eskaintzeko...? Gidari lanaz gain, ez al da irakaslearekiko dependentzia handiegia sustatuko? Non ezarriko genuke autonomia, dependentzia eta kooperazioaren arteko muga?*

Nik sortutako proposamen didaktikoari dagokionez, ikaskuntza zerbitzua metodologia ondo erabili dudala eta eman beharreko urrats eta jarraitu beharreko fase guztiak garatu ditudala esango nukeen arren, hau da, aurrekariak, diagnostikoa eta planifikazioa, proiektuaren gauzatzea, ebaluazioa eta sistematizazioa finala (Tapia: 2006) Gorputz Hezkuntzaren irakasgaiaren oinarrietako batean zalantzak sortzen dizkit; denbora motorraren luzapenean (Campos: 2011), hain zuzen ere. Jarduera fisikoa egingo dutela eta gorputza mugituko dutela ukaezina da, hala ere, ikasgela barruan burutuko diren saio teorikoetan ez dute izerdituko, sedentarismoarekin jarraituz. Hala eta guztiz ere, nire aburuz, arazoa ez da nik sortutako proposamen didaktikoarena soilik, baizik eta metodologiaren funtzionamenduarena baizik; aztertze lan handia egin behar baita. Hau horrela izanik, ikaskuntza zerbitzua metodologiaren eta gorputz hezkuntza irakasgaiaren arteko erlazioa beste irakasgai batzuekiko elkarlanarekin osatzea egokiena litzatekeelakoan nago. Txosten honen mamia den toponimoen proposamen didaktikoan, esate baterako, garatze lana euskara eta informatika irakasgaietan eginez gero, gorputz hezkuntzako saioetan soilik ibilaldiak egingo genituzke, ikasleen bizimodu aktiboa eta denbora motorra ikaragarri sustatuz. Hortaz, hona hemen nire galderak: *Ikaskuntza zerbitzua gorputz hezkuntzarako metodologia aproposa da? Nola moldatu genitzake orduak denbora motorra ahalik eta handien izateko? Kooperazioa eta elkar lana kanpo entitateekin ez ezik, irakasgai ezberdinekin egitea onuragarria litzateke?*

Ez nuke txosten honekin amaitu nahi ikaskuntza zerbitzuaren erabilpenaren alde egin gabe, argi baitago ondo kudeatuz gero metodologia erabilgarria eta aberasgarria dela. Hau horrela izanik, proiektu hauen sustapena eta hedatzea onuragarria litzatekeela esango nuke, ikasleak garatzeaz ez ezik, testuingurua hobetzeaz eta harremanak kohesionatzeaz ere arduratzen baita.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

BIBLIOGRAFIA

-67/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/130/2>

-Andra Mari Ikastola (2023ko Otsaila). Orekaz. <https://andramariikastola.eus/eu/orekaz>

-Andra Mari Ikastola (2023ko Otsaila): KiVa programa.

<https://andramariikastola.eus/eu/kiva-programa>

-Araña Martxueta, A (2023). Eskola praktikak 3 Andra Mari Ikastolan. [Praktiketako memoria] Nafarroako Unibertsitate Publikoa

-Arin Ferre, M. (2021). *Ikaskuntza zerbitzua eta gorputz adierazpena Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean.*

https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/50999/GrAL_Arin.pdf?sequence=3&isAllowed=y

-Battle, R. (2011). *¿De qué hablamos cuando hablamos de Aprendizaje-Servicio?*. *Rítica*, 972, 49-54. or.

<http://roserbatlle.net/wp-content/uploads/2012/02/deque-hablamos-cuando-hablamos-de-ap-s-revista-crc3adtica1.pdf>

-Batlle, R. (2013). *El aprendizaje y servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria*. PPC.

-Batlle, R. (2020). *Aprendizaje-Servicio. Compromiso social en acción*. Santillana.

-Campos Mesa, M. D. C., Garrido Guzmán, M. E., & Castañeda Vázquez, C. (2011). *El estilo de enseñanza como determinante del tiempo de compromiso motor en educación física. Scientia: revista multidisciplinar de ciencias de la salud*, 16 (1), 40-51.

-de la Cerda, M.; Graell, M.; Martín, X.; Muñoz, A. y Puig, J. M. (2009). *Aprendizaje servicio: ejemplos y definiciones. In Aprendizaje servicio (ApS). Educación y compromiso cívico* (pp. 15–32). Barcelona: Graó.

-De La Serna Martinez de Alegria, J. (2021). *Ikaskuntza zerbitzua, inklusioaren alde kooperatuz*.

https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/51000/GRAL_DeLaSerna.pdf?sequence=1&isAllowed=y

-Delors, J. (2013). *Los cuatro pilares de la educación*. Galileo, (23).

-Erdozia Mauleon, J. L. (2001) *Etxarri Aranazko leku-izenak*. Fontes Linguae Vasconum 88.,Principe de Viana, Iruñea.

-Erdozia Mauleon, J. L. (2019) *Etxarri Aranazko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala*. Nafarroako Gobernua.

-*Etxarri Aranazko Mapa Toponimikoa*, 2000, Trabajos Catastrales S.A, Etxarri Aranazko Udala.

-Hoyuelos Napal, J. (2020). *Hezkuntza-berrikuntza heziketa fisikoan: ikaskuntza-zerbitzua*. [Gradu Bukarako Lana] Nafarroako Unibertsitate Publikoa

-Ibarrondo. I. (2015). *La primera vez que la pegué con la izquierda:" 7Ps" para brillar*. Kolima Books.

-Kintana Igoa, O. (2017). *Practicum III Memoria*. [Praktiketako memoria] Nafarroako Unibertsitate Publikoa

-Lizarbe Horcada, A. M. (2014). *Gorputz Hezkuntzako irakaskuntza estiloen analisisa*. 2014, de Nafarroako Unibertsitate Publikoa:Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

-Nafarroako Gobernua (2007) Euskararen egoera Sakanan <http://sakana-mank.eus/wp-content/uploads/sites/72/2014/07/Euskararen-egoera-Sakanan.pdf>

-Nafarroako Toponimia Ofizialaren Batzordea. (2023) *Nafarroako toponimiaren mapa*: <https://administracionelectronica.navarra.es/toponimia/?lang=eu#ZXh0fGJhc2V8bWFwYWJhc2V8bGF5ZXJzfhV8L3RvcG9uaW1pYS9vZ2Mvd21zfG58dG9wb25pbW9zfG98dnxofHVyfGZ8dHxUb3BvbmltaWF8aV4xXjUxMjcyMS4zNDJ8NDUzNDYzOS40OTR8NzEzOTM3LjM0>

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

[Mnw00TAyNzY3LjQ5NF4kMHxASHxJfEp8S118MXwyfDN8QCQ0fDV8Nnw3fDh8R3w5fC0xfEF8LTF8QnwtMXxDfC01fER8RXxGfDddXV0=](https://doi.org/10.1016/j.ikuntza.2021.100001)

-Nafarroako Toponimia eta Mapagintza (NTM) XII liburuan (1993, 29-59. or.)

-Ormazabal Arizkorreta, G., Basasoro Ciganda, M., & Arguiñano Madrazo, A. (2021). *Ikaskuntza-Zerbitzua. Hezkuntza komunitateko eragile ezberdinen arteko harremanak eraikitze eta sendotzeko bidea*. <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/52632/60d05c4c1d960.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

-Palos, J. (2015). Los proyectos de ApS siguen etapas bien establecidas y han de estar abiertos a cambios imprevistos. *In 11 ideas clave ¿Cómo realizar un proyecto de aprendizaje servicio?* (pp. 103–111). Barcelona: Graó.

-Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C., & Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio: educar para la ciudadanía*. Centro de Investigación y Documentación Educativa.

-Puig, J. M., et al. (2015). Para evaluar y mejorar un proyecto de aprendizaje servicio es útil analizarlo con la ayuda de una rúbrica. *In 11 ideas clave ¿Cómo realizar un proyecto de aprendizaje servicio?* (pp. 175–188). Barcelona: Graó.

-Puig, J. M. (Coord). (2009). *Aprendizaje servicio (ApS). Educación y compromiso cívico*. Barcelona: Graó.

-Puig, J. M. (Coord). (2015). *11 ideas clave ¿Cómo realizar un proyecto de aprendizaje servicio?* Barcelona: Graó.

-Sanduzelai Ikastetxe Publikoak eskainitako hitzaldia (2022-12-12) *Ikaskuntza Zerbitzua* [aurkezpena]. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, Nafarroa.

-Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y Servicio Solidario*. Madrid: Ciudad Nueva.

-Tapia, M. N. (2010). *La propuesta Pedagógica del “aprendizaje-servicio”: una perspectiva latinoamericana*. Tzhoecoen, 5, 23–43.

ERANSKINAK

Ibilbideak

Behin saio teoriko hauek landu eta gero, Etxarri Aranazko toponimo ezberdinak ezagutzeko unea iritsi da, hau da, ikasgelan ikusitako errealitatean islatuko da. Hala eta guztiz ere, ibilbideak burutu baino lehen, egun bakoitzean ezagutuko ditugun leku izen horien xehetasunak birgogoratuko ditugu, hala nola, osagaiak edo adierazi nahi dutena. Horretarako, kahoot ezberdinak, aukera anitzeko galderak edota taldekako aurkezpen txikiak prestatuko ditugu, lan erraz eta dibertigarri baten bitartez ondare kulturala barneratzeko, alegia. Jarraian, toponimo bakoitzaren iruzkin txiki bat idatzi dut, informazio esanguratsuen bertatik lortzeko eta adibide batzuk emateko.

Esan bezala, proposamen didaktiko honetan ibilbide ezberdinak burutzeko aukera izango dugu, hori gutxi balitz, hauek hamaika eratan egitea ahalbidetuko zaie ikasleei. Esate baterako, oinez, korrika, txirrindulan, irristaketan... irakasle bakoitzak adin tarte bakoitzerako egokiena ikusten duenaren arabera, honi esker, jarduera fisikoa egiteaz gain, kirol ezberdinetan aritzeko aukera izango dutelarik.

Hala eta guztiz ere, argi dago, ezin izango ditugula ibilbide guztiak maila guztietako ikasleekin, ezta kirol beraren bidez ere ez burutu, adibidez, menditik irristaketan joatea ezinezkoa den era berean, malda handiak dauden ibilbidean ez ditugu txirrindulak erabiliko. Dena den, horietako bakoitza banan-banan aurkezten dudan heinean, nik gomendatuko nituzkeen edota posible ikusten ditudan baliabide guztiak aipatuko ditut; hala eta guztiz ere, azpimarratu nahiko nuke, gero irakasle bakoitzak proposamen didaktikoa bere egiteko aukera daukala, eta, hortaz, gomendagarriak ikusten dituen aldaketa guztiak egitea posible duela.

Ibilbidideekin banan-banan sartu baino lehen, beharrezkoa iruditzen zait jakitea guztien trackak eskuragarri ditudala; izan ere, proposamen didaktikoa sortu aurretik, nik neuk hauek guztiak egin nituen eta nire Garmin Connect perfilean gorde nituen. Ibilbide hauek ikasleekin erabili nahi izatekotan, ezinbestekoa suertatuko da gutxienez taldekide batek TCX edo GPX formatuekin bateragarria den kirol erloju edo mugikor bat edukitzea. Dena den, argi utzi nahi dut maparekin edo planoarekin ere lasai asko egiteko aukera dagoela, une orotan bidetik joateaz gain, horietako asko kolore ezberdinekin era egokian markatuta daudelako. Gainera, ikasleen erosotasunerako eta irakasle on lasaitasunerako, ibilbideak ez ezik, toponimoen ezaugarri esanguratsuenak ere aldeztu aurretik landuko ditugu.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Ilido beretik jarraituz, proposamen didaktiko honek aurrera eramateko aniztasun handia eskaintzen duenez, talde bakoitzari ahalik eta hobekien egokitzeko erraztasunak ditu. Hau kontuan harturik, ibilbideak burutzeko hautatuko duten jarduera fisikoan ez ezik, horiek garatzeko eran ere malgutasuna eskaintzen dute. Adibidez, Pokemon Go jokua zaletuak diren horiei istorio bat prestatu diezaiekegu eta toponimo bakoitza piztia bat dela esan, hortaz, ikasleen helburua harriak ehizatzea edota harrapatzea izango da, euren jokoan egin ohi duten era berean. Beste aukera posible bat artea sustatzea litzateke, horretarako, talde bakoitzak leku izena adierazten duen harria eta testuingurua arte lan baten bidez irudikatu beharko luke, hala nola, marrazkia, eskultura, arte idatziak... Beraz, laburbilduz, ikusten den bezala, argi dago jarduera fisikoa egiteaz gain, toponimoak ikasiko dituztela eta euren intereseko lanak jarriz gero, hamaika era posible, baina baliagarri eta aberasgarritan burutu daitekeela proposamen didaktiko malgu hau.

Azkenik, lan honen oinarria diren toponimoak ezagutzeko beharrezkoa den informazio gehiena Jose Luis Erdozia Mauleon herritarrari esker lortu dut, ahoz eskaintako informazioaz gain, bere *“Etxarri Aranazko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala.”* (2019) eta *“Etxarri Aranazko leku-izenak.”* (2001) liburuetatik ere xehetasun ugari eskuratu ditut. Hau horrela izanik, lerro hauek bere lanari nire eskerrik beroenak adierazteko baliatuko ditut.

1.Ibilbidea:

Etxarri Aranazko toponimo ezberdinak ezagutzeko lehen ibilbide posible bat hau izango litzateke; izan ere, proposamen didaktikoari hasiera emateko ikasleei ibilaldi lau eta malgua eskaintzea aproposa da. Honi esker, lehen momentutik motibazioa eta jakin mina sustatuko genituzke. Lehen ibilbide honetan 5 leku izen adierazten dituzten zutarriak ikusiko dituzte, Illerra, Mubats, Txinermuno, Untzie eta Itxere, hain zuzen ere. Honen harira, aipatu beharra daukat jarraian aurkeztuko dudan aldaera posible batean Zaldia ere ezagutzeko aukera eskainiko dugula, beraz, leku izen honen iruzkintxo bat ere gehituko dudala.

Illarra-Illerra: Bi eratan ezagutzen denez, herritarrok bigarrena darabilgu nagusiki, hots, Illerra. Toponimo honen osagaiak (tx)ilar + -a dira; baina ikusten den bezala, etxarriarrok txilar beharrea iller erabiltzen dugu. Hau horrela izanik, leku izen honen txilardegiari egiten dio erreferentzia.

Mugarats-Mubats: Hedatuen dagoen teoriaren arabera, bere osagaiak mugarr(i)+etxe dira; dena den, Mubats, Muats edota Mugats izenak entzutean, leku izen

berdinari egiten diote erreferentzia. Bilakaera nabaria jasan duen leku izena dugu hau, izan ere, Mugarrietxe jatorritik, Mubatserainoko aldaketa izan du. Hala eta guztiz ere, datu garrantzitsuena “Muga” da, hortaz, argi dago herriaren mugan dagoela eta hau dela ikasleek argi eduki beharrekoa.

Txiñarmuno-Txiñermuno: Bere osagaiak txiñer+muino dira. Lehenengoak sorginei erreferentzia egiteko erabiltzen den txiñer hitza adierazten du; bigarrenak, berriz, egun darabilgun muino hitzari. Hau horrela izanik, argi dago leku izen honek sorgin muinoa adierazten duela. Dena den, gaur egun bertan ez da muinorik ageri, gizakiak bidelanak egiten muino desagertarazi baitzuen.

Untzie: Jatorria baieztatzea zaila suertatzen den arren, aukera posible bat “Huntze” landareari erreferentzia egitea litzateke.

Itxare-Itxere: Bere osagaiak idi+sare dira. Idi edo abereendako hesi edo akotatua izango genuke, beraz, azken hau, eta idiak biltzeko tokia, berriz, toponimo honen adierazpena. Bertako lurak herriarenak direnez, joan zen mendeko seigarren eta zazpigarren hamarkadetan ibintzeak egiten ziren Itxereko lotetan. Gaur egun, herriko abeltzainek erabiltzen dituzte bertako lurak belardi moduan.

Zaldua-Zaldube: Leku izen honen informaziorik adierazgarriena, eta, hortaz, ikasleek jakin beharrekoa, latineko saltus hitzetik datorrela da. Dena den, bertaraino gerturatzeko ibilbide nagusitik desbideratu beharra daukagunez, erabilgarri edukiko dugun denborak baldintzatuko du hau ezagutzea edo zuzenean Mubatsetik Untzieraino joatea.

Ibilbidearen ezaugarriei dagokienez, sei kilometro inguruko luzera duen bide laua dugu hau. Bestalde, azken kilometrora iritsi arte, irristailuekin aritzeko lurzoru egokia daukanez, nahi duen orok jarduera fisiko honen bitartez burutu dezake ia ibilbide guztia, eta, azken unean, zapatilak jantzi eta oinez edota korrika. Dena den, txirrindulaz egiteko ere aproposa eta erraza da ibilbide hau, ez du inongo zailtasunik eta ikasle guztiek burutzeko gaitasuna daukatela ziur nago. Azkenik, aipatu beharra daukat, hasieran NA-2410 eta ondoren NA-120 errepideak gurutzatzen ditugunez, kontu handiz ibili beharko garela. Arazoak ekiditeko, egokiena litzateke lehen bidegurutzeraino guztiok elkarrekin joatea eta behin partzelarian sartuta, ikasleei askatasuna eskaintzea. Bigarren bidegurutzeari, berriz, ibilbidearen erdialdean dagoenez, aukera posible bat litzateke hura gurutzatu baino lehen berriro ere ikasle guztiak biltzea eta bide bazterrean dagoen zelaietan atseden hartzea.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.


Gainera, puntu honetan Txinermuno eta Untzie harriak elkarren ondoan daudenez, hauetan itxoitea posible litzateke.

Ibilbidearen malgutasuna hau bera burutzeko hautatu daitezkeen jarduera fisikoetatik haratagoa doa, izan ere, esfortzu fisikoa egin nahi duen orok ere kirola egiteko aukera dauka. Hala eta guztiz ere, aldaera hau Lehen Hezkuntzako ikasle helduenei soilik eskainiko diegu, horretarako, aukera bat litzateke, adibidez, ibilbidean aurkitzen diren toponimoak ordenean ikusi beharrean, era desordenatuan bistaratzea. Erabaki hau hartuz gero, taldekako mugikor bat eskatuko genieke eta zutarri bakoitzean kide guztiak elkarrekin daudelarik argazki bat atera beharko lukete, honi esker, ikasleen lokalizazioa edukitzeaz gain, arauak errespetatzen ari direla baieztatuko genuke. Beste aukera posible bat Zaldua toponimoa aurkitzea litzateke, lan hau erdiesteko pista ezberdinak eskaintzeko aukera izango genuke, izan ere, Mubatsetik oso gertu dagoen zutarria den arren, ibilbidetik desbideratu beharra dago, hala eta guztiz ere, errepiderik zeharkatu behar ez denez, argi edukiko dute partzelariatik dagoela eta hura bilatzen gogotsu arituko dira. Hala eta guztiz ere, Lehen Hezkuntzako gaztetxoekin beharrezkoa da une orotan guztiok elkarrekin joatea eta irakasleak gidari lana egitea.

Azkenik, arestian esan bezala, ibilbideak ikasleei egokitzeko gaitasuna eskaintzen duenez, posiblea litzateke Pokemon Go bideojokuaren antzera harriak harrapatzea, horretarako, bakoitzaren argazki bat egitea. Hori egin ezean, beste baliabide bat litzateke artea sustatzea, helburu hau erdiesteko, taldekideen artean zutarri bat hautatu beharko lukete, honen ingurua ongi aztertu, eta gero, plastika saioetan, hura irudikatzeko arte lan ezberdinak egin, hala nola, margolanak edota eskulanak. Hori gutxi balitz, hizkuntzak garatzeko proposamen aproposa ere badenez, egokia litzateke ibilbidearen deskribapen idatzia edota istoriotxo bat sortzea.



Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.



2. Ibilbidea:

Ibilbide hau Etxarri Aranazko Kanpingetik hasiko dugu eta aukera anitzak eskaintzen dizkigunez, hauek aurkeztuko ditut. Dena den, lehenik eta behin, ibilbidearen nolakotasunak aipatzea ezinbestekoa suertatzen da.

Hasteko, argi eduki behar dugu irteera hau burutzeko aukera bakarra gure oinen bitartez dela, hortaz, txirrindulak eta patinak debekatuta egongo dira; izan ere, ibilbide guztian zehar mendiko lurzoru lakar eta aldapatsuan mugituko gara eta ezinezkoa izango da hauen bitartez mugitzea. Ildo beretik jarraituz, egun honetan ez dugu errepiderik zeharkatuko, hortaz, segurtasun aldetik, lasaiago ibiltzeko aukera edukiko dugu. Bestalde, 15 kilometro inguruko ibilbide bat izateaz gain, 650 metro inguruko desnibel positiboa dauka, hau da, malda nabariak igoko ditugu, beraz, Lehen Hezkuntzako helduenek egoera fisiko ona edukitzea ezinbestekoa da. Ibilbidearen ezaugarriekin aurrera egiteko, aipatu beharra daukat zirkularra dela, hau da, bi norabideetan egitea posiblea dela, hasiera eta amaiera puntuak berdinak direlako, Etxarri Aranazko Kanpinga, hain zuzen ere. Azkenik, ikasleek jakin behar dute jarraitu beharreko markak horiak eta txuriak direla, gainontzeko koloreek bestelako bideetatik eramango dituztelako.

Hala eta guztiz ere, Lehen Hezkuntzako gaztetxoekin ibilbide osoa burutzeko oso gogorra denez, Haritz Zaharren ibilbidea guztiok elkarrekin egingo genuke. Hau eginez gero zenbait toponimo ikusi gabe geldituko badira ere, nagusienak ezagutzeaz gain, harremantze osasuntsuak sustatzeko eta jarduera fisikoa egiteko probestuko genuke irteera berezi hau.

Gainera, Etxarri Aranazko udalak bi ibilbideak, hau da, trikuharriena eta haritz zaharrena era paregabean kolore ezberdinekin identifikatuta dituenek, ez genuke inolako arazorik izango.

Ikasle helduenekin lantzeko, ordea, aldaera gehiago eskaintzen ditu Trikuharrien ibilbideak, dena den, talderen batek ez badu bere burua hamabost kilometroak egiteko gai ikusten, haritz zaharren ibilbidea egitea ahalbideratuko diogu. Gainontzeko ikasleekin, ordea, bi aldaera posible bururatzen zaizkit.

Lehenengoari dagokionez, ibilbide zirkularra izanik, lasterketa moduko bat egitea, talde bakoitzari lokalizatzeko eta toponimoekin argazkiak ateratzeko mugikor bat ematea, gero, ibilbidea norabide ezberdinetan egiteko. Aukera hau eginez gero, argi utzi behar zaie lasterketa izanagatik ere, guztiok elkarrekin joan beharko direla eta karrera ez duela kanpingera lehena iristen den taldeak irabaziko, baizik eta landutako toponimo guztietan argazkia ateratzen duena baizik. Honen harira, segurtasun aldetik lasai egon gaitzke irakasleok, mugikorrean euren lokalizazioa edukitzeaz gain, arestian esan bezala, ez dutelako inongo errepiderik ere ez zeharkatuko eta ibilbide guztia behar bezala markatuta dagoelako. Bestalde, ikasleen lana erraztealdera, ibilbidean zehar aurkitu beharreko leku izen guztien plano bat ahalbideratzea ere posiblea litzateke.

Bigarren aukerari eutsita, ikasgelako lana naturan aurkezteko probestuko genuke; izan ere, posiblea litzateke talde bakoitzari ibilbidean zehar ikusiko ditugun toponimo ezberdinak esleitzea eta hauen informazio bilatzea, gero, behin lekuraino iritsita, beraiek bertan aurkeztuko luketelarik. Hau da, ibilbidea egin baino aste bat lehenago irakasleak ikusiko ditugun leku izen guztien zerrenda bat eskainiko du eta talde bakoitzari horietako bat egokituko zaio, ondoren, ikasleen lana izango da hura lantzea. Azkenik, behin lan teorikoa egin eta gero, ibilbidea guztiok elkarrekin egingo dugu eta toponimo bakoitzean hura landu duen taldeak eskainiko du eman beharreko informazio guztia.

Trikuharrien ibilbidean barrena topatuko ditugun leku izen ezberdinak eta hauen xehetasunak honako hauek dira:

Basopokale: Bere osagaiak baso+bokalea dira. Lehenengoaren adierazpena argia den arren, baliteke bigarrenak zailtasunak sortzea; izan ere, Etxarri Aranatzen sarrera adierazten du, hortaz, toponimo honek basorako sarrera adierazten du. Hala eta guztiz ere, herritarron artean bi eratan deritzogu termino honi, Basopokale edota Basokopale, hain zuzen ere.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Sorazuri-Soazui: Etxarriarron artean bigarren modua nagusitzen da, hau da, Soazui. Teoria nagusiaren arabera, bere osagaiak soro+zuri dira; dena den, nahiko hedatua dagoen beste teoria batek soro+zubia dela defendatzen du; bertan zubia baitago. Hau horrela izanik, esango nuke hoberena ikasleei posibleak diren bi teoriak aurkeztea dela.

Maitzegur: Toponimo honen lehen osagaia ezezaguna denez, soilik segurua dena, hots, bigarrena, eskainiko diegu ikasleei; hau da, -egur. Toponimo hau horrela amaitzearen arrazoa bertatik ateratzen den egur kopuru izugarriak adieraziko lioke. Gainera, ikasleekin bertaraino gerturatzean ekintza honen aztarnak erraz asko ikusiko ditugu, hortaz, jatorriaz gogoratzeko erraztasunak izango lituzkete gaztetxoek.

Fagamendi-Famendi: Toponimo honen osagaiak argi-argiak dira, fago+mendi, hain zuzen ere. Dena den, herriko euskalkiaren ahozketasunaren berezitasunak kontuan harturik, Faamendi ahoskatzen dugula ulertu beharko dute ikasleek. Bestalde, xehetasun bezela, leku izen honen tontorrean trikuharria dagoela aipatuko genuke.

Auntzetxe: Basoan abereak, eta izenak adierazten duen bezala bereziki ahuntzak, biltzeko borda edo tokia. Gaur egun zutik bakarra dagoen arren, aitzinean bi zeuden, Bordaburukoa eta Oliyoarritakoa. Lehena, Etxarriko plazaren mendebaldean zeudenentzako eta bigarrena, ordea, plazaren ekialdean zeudenentzako. Ikasleek informazio hori ulertzearekin nahikoa izango genuke, dena den, helduagoekin landuz gero, Jose Luis Erdozia Mauleonen lanari esker xehetasun gehiago eskaintzeko aukera dago.

Txaradigorri-Txaigorri: Leku izen honen osagaiak txara+ -degi + gorri eta hauek dira hauetako bakoitzaren esanahiak. Txara zuhaitz gazte eta liraina da; bertan, pagoa dago bereziki. Bestalde, arestian esan bezala, Etxarrieran ez da -di atzizki edo morfema eratorlea erabiltzen, haren ordez -de(g)i darabilgu. Azkenik, gorriak koloreari erreparatzen diolarik; dena den, euskara zaharrean koloreak izendatzeko berezitasunak kontuan harturik, gorri izenak gaur egungo marroiari eta gorriari egingo lioke erreferentzia.

Mintegixuta: Toponimo eran identifikaturik ez dagoen arren, Trikuharrien ibilbideko eraikuntza litiko bati horrela deritzogu.

Zelatamuno: Muinoaren definizioa oinarri harturik, hau da, lur azaleko goragunea dela jakinda; eta lehen osagaiari erreparatuz gero, zelatan egiteko tontortxoia izanen genuke toponimo honen eremua.

Irumugeta-Irumubeta: Eremu honetan 1777 urtean jarritako mugarría dago eta muga egiten duten hiru herrien izenak ageri dira bertan idatzita: Echarri Aranaz, Vall de Ataun eta Vall de Burunda. Hortaz, toponimoak hiru mugei egiten dio erreferentzia.

Bentatxar: Bere osagaiak agerian daude, bertan ostatu hartzeko edo gaua pasatzeko benta txarra edo desegokia.

Jentilzulo: Toponimo honen osagaiak argiak dira, Jentil+zulo. Etxarrieran trikuharriak izendatzeko erabiltzen da hitz hau, izan ere, toponimoaren eremuan, hain zuzen ere, trikuharria dago. Bestalde, ikasleei argi utzi behar zaie euskal mitologian jentilak eraikin megalitikoak egin zituzten pertsonaiak direla.

Iruiturrieta-Iruitturrite: Leku izen honen osagaiak (h)jiru + iturri + -eta dira. Berezitasun bezala, aipatu beharra dago etxarrieran iturri iturri ahoskatzen dela.

Beritzeta-Beitzeta: Osagaiak bei(tu) + -tze + -eta dira. Lehen bi osagaiak elkartzerakoan beitze ematen dute, eta herritarron euskalkian aditz izen honek isuna jartzea adierazten du.

San Adrian: Sanadrin izenez ezaguna ere den eremuari izena bertako baselizako santu hononimoak ematen dio. Ekainaren hamaseian egun osoko erromeria ospatzen da bertan eta etxarriarrok familian edo lagun artean pasatzen dugu eguna. Badirudi erromeria XV-XVI mendeetatik ospatzen dela.

Artasoro-Artasoo: Osagaiak arto + soro dira; dena den, etxarriarraren ezaugarriak aurkezterakoan azaldu bezala, Artasoo ahoskatzen da. Sakana ia osora hedatutako hitza dugu bigarrena, "alor" burutzapenaren ordezkot gisa.

Ur bi jotzen duen zubi-Urbijotzendenzui: Toponimo honen osagaiak ur+bi+jotzen+d(u)en+zubi dira, izan ere, zubiaren inguruan Ibarbeltzeko erreka eta Iraigorrikoa bi errekek bat egiten dute. Hala eta guztiz ere, zubiak Iraigorrikoa soilik zeharkatzen du, bestea ondo-ondoan gelditzen delarik; hortaz, dokumentazioaren arabera, toponimoa hasieran urbijotzenduena litzateke, eta, orain, zubi hitzarekin osatu da.

Santatritei-Santateite: Etxarriarroi bi eratan entzun dakiguke, dena den, biek hala biek osagai berdinak dituzte, Santu+ -tegi + -eta. Hau horrela izanik, teoria nagusiak dioenez, Santa Trinitatetik eratorriko litzateke toponimoaren izena.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Lañube-Leñube: Bere osagaiak laino+be(he) dira, hala eta guztiz ere, Etxarrieran bereziki Leñube darabilgu. Erreka ondoko eremua izanik, behe lainoa ohikoa izaten da bertan, beraz, hau adieraziko liguke terminoak eta hau litzateke ikasleei irakatsi beharreko daturik esanguratsuena.

Danbolintxulo: Leku izen honen osagaiak danbolin + zulo dira. Lehenengoari dagokionez, herriko euskalkian bi esanahi dauzka, alde batetik, danborra txikia eta, beste aldetik, gaztainak erretzeko burdinezko tresna. Dena dela, bi adierazpenek zentzua izango lukete, izan ere, San Adringo erromerian bertan txistua jotzeaz gain, eremu horretan gaztainondo ederrak zeuden.






Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.





Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.





3. Ibilbidea:

Hirugarren proposamen hau adin tarte guztietarako aproposa izateaz gain, ikasleei oso erakargarria suertatuko zaielakoan nago; izan ere, hein handi batean ibaiaren ertzetik joango garenez, eguraldi ona eginez gero, honetarako egokitutako puntu jakin batean zapatilak erantzi eta hankak bustitzeko aukera eskainiko diegu. Dena den, norbaitek ura gustuko ez badu, ibaiaren ertzeko larre zabalean lasai asko jardura librean burutzeko aukera izango du. Esan bezala, ibilbideak ez du aparteko zailtasunik, zortzi kilometro inguruko ibilbide laua da, hala ere, irristaketan egitea ez da posiblea izango lurzorua harritsua delakoa, hortaz, oinez edota txirrindulan egitea ahalbidetuko diegu.

Bigarren aukera hautatuz gero, argi izan behar dugu burukoa eramatea nahitaezkoa dela, eta irakaslearen aurretik ezingo dela inor ere ez joan. Bestalde, errepide nagusia ikutzen ez dugun arren, ikasleak bikoteka jarriko ditugu eta une orotan binaka joango dira; ondoren, banakako lerroan jartzea tokatuz gero, ezkerretakoa eskubian dihoanaren atzean jarriko delarik. Txirrindulan ibiltzeko bide aproposa da, ez da teknika handirik behar irteera ondo burutzeko; hori ez ezik, aldaparik ez dagoenez, edonork osa dezake; hortaz, garraio honen bitartez motibazioa sustatzen denez, aukera ona litzateke horrela jardutea.

Aldiz, oinez egitea nahi izanez gero, kontuan hartu beharreko daturik garrantzitsuena arropa eroso eta ura eramatea litzateke; ibilbide guztian zehar ez baitago ur edangarririk jasotzeko aukerarik. Bestalde, ibilbide zirkularra izan arren, nire aburuz, egokiena nik proposatutako ordenean egitea da; era honetan, lehenik eta behin Olentzero Etxarri Aranatzera iristen den eremura iristen garelako, eta, azkenik, ibilbidearen amaieran herriko

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

presa zaharra eta presa berria, bainua hartzeko bi guneak, daudelako. Oinez burututako ibilbidearen ezaugarriekin amaitzeko, esan beharra daukat ez dugula errepiderik zeharkatzen eta ikasgelan ondo landuz eta ikusiz gero, bidegurutzetan galtzeko aukerak oso txikiak direla, hortaz, ikasleak euren kasa aurrera eta atzera mugitzea posiblea dela.

Arizalko-Aizelko: Toponimoaren lehen osagaia (h)ari(t)z dela dirudi, hala eta guztiz ere, Etxarrin ez da sekulan ere ez horrela erabili. Gainera, zuhaitz hauek gure herrian nonahi aurki daitezkeen arren, eremu honetako zuhaitzak ametzak dira. Teoria honetan oinarriturik, Jose Luis Erdozia Mauleonek toponimoaren jatorria beste bat izan daitekeela dio, (h)aize+leku edo e(h)iza+leku, hain zuzen ere.


Oporo-Opoo: Arestian esan bezala, etxarriarron euskalkiaren berezitasunak oinarri harturik, Opoo litzateke berezko ahoskapena. Bestalde, leku izenaren eremua Arakil ibaiaren bazterrak direla ikusirik, hau da, leku zelaitzua eta haretsua, bere osagai bakarra oparo litzateke; nekazaritzarako leku egokia, hain zuzen ere.

Baxate: Toponimoaren osagaiak baso+ate dira; hortaz, Basopokaletik hurbil dagoenez, leku izen honen sinonimotzat har genezake; izan ere, biek basoko sarrera adierazten dute.

Kanpozelai-Kanpozelei: XVI. mendeko Etxarri Aranazko planoan ibaiaz bestaldeko kanpoa ageri da, gaur egungo Kanpozelei toponimoaren eremuan, hain zuzen ere. Bere adierazpena herritik at geratzen den eremua litzateke. Bestalde, berezitasun bezala, ikasleei aurkeztu behar diegu toponimoaren bilakaeran Ganboa abizena erabiltzen dela.



Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.



4. Ibilbidea:

Ibilbide posibleetatik aldapatsuena, gogorrena, baina aldi berean, aldaera ugari eskaintzen dituen; izan ere, hasiera batean egun bakar batean toponimo guztiak ezagutzeko prestatutako irteera izanagatik ere, irteera ezberdinetan egitea ahalbideratzen du. Esate baterako, Arrigorri, Kostuel, Kostuelgo Iturria eta Artzabal lehenengo egunean; eta Txuixoo, Mubeko Iturria eta Maiza, aldiz, bigarrean. Honen harira, aipatu beharra daukat, Lehen Hezkuntzako gaztetxoekin ibilbide guztia egun bakar batean egitea deuseztatu dudan era berean, Maiza eta Mubeko Iturriraino gerturatzea ere ez dudala bidezkoa ikusten; alde batetik, egingo luketeen distantzia handiagatik, eta, beste aldetik, igoko luketen desnibel positibo guztiagatik. Hortaz, egun batean Txuixoo ezagutuko lukete, eta, bigarren egun batean, Arrigorritik Artzabal bitartekoak. Azkenik, argi eta garbi dago ibilbide hau soilik oinez egiteko prestatuta dagoela.

Lehen Hezkuntzako ikasle helduagoekin, ordea, euren jarduera fisikora ahalik eta hobekien egokitzen diren lehen aipatutako bi aukeren artean hautatu beharko genuke. Dena dela, ibilbide honetan funtzionamendu berezi bat eskainiko diegu, eremu menditsua izanagatik ere, nahiko segurua denez, ikasleak libreki mugitzen utziko ditugu. Horretarako, une orotan taldekide guztiak batera joaten direla baieztatzeke eta euren segurtasuna bermatzeko, taldeko mugikor bat edukiko dute. Bestalde, sakelekoaren bigarren funtzioa, toponimoaren izena adierazten duen harri argazkia ateratzeko baliabidea izatea litzateke. Hori ez ezik, ikasgelan alde aurretik leku izenak lantzeko taldeka plano bat egingo dute, eta hau erabiltzeko aukera ere izango dute. Gainera, norbaitek behar izanez gero, nik egindako ibilbidearen tracka eskaintzeko aukera izango lukete. Azkenik, toponimoak bezalako ondare

aberatsak hizkuntzarekin lotzeko, ibilbidean zehar ikusitako leku izenak eta hauen eremuak deskribatzeko testu idatzi bat sortu beharko dute ikasleek.

Arrigorri: Toponimo honen osagaiak (h)arri + gorri dira; eta ikasleek argi eduki behar dute Bargako igoeraren hasierako eremua dela. Bestalde, beste berezitasun bat aipatzealdera, ura herrira eramateko egindako lehen biltegia oraindik ere bertan dagoela jakin behar dute.

Kostuel: Leku izen honen osagaiak gorosti + (s)el izan daitezke, gainera, gorostia maiz agertzen den eremua izanik, zuhaixkari erreferentzia egingo liokeen toponimoa genuke.

Kostuelgo iturria-Kostuelgo iturriye: Izenak argi eta garbi adierazten duen bezala, Kostuel eremuko iturria.

Artzabal: Leku izen honen osagaiak (h)arri + zabal dira eta Urbasa gain-gaineko eremua da. Ikasleek jakin behar dute urtero, maiatzaren lehenengo egunean eta hil osoak iraun bitartean, meyetza jartzen dela bertan. Zuhaitz hau bertatik aizkoraz botatuko eta herritarrek bizkargainean mugitutako pago luze bat da. Xehetasun bezala aipatu honek zutik iraun bitartean mendian abereak aske egon daitezkeela.


Maiza: Meize izenez ere ezagutzen da Etxarri Aranatzan; bestalde, muga egiten duen Bakaiku herrian Baiza deitzen zaio eremu berdinari.

Mugako iturria-Mubeko iturriye: Iturri honi izena ematen dioten osagaiak muga + ko dira, hortaz, argi dago ondoko herriarekin, hots, Bakaikurekin, ezarritako muga adierazten duela. Berezitasun bezala, ikasleei jakinaraziko diegu Etxarri Aranatzan Mubeko iturriye deitzen zaiola. Era berean, ikasgelan bakaikuarrenbat egotekotan, bere herrian iturri berdinari Aliturri deritzotela jakitea eskainiko diogu.

Txuixo: Toponimo honen osagaiak txuri + soro dira. Dena den, izenaren jatorriaren bigarren teoria posible baten arabera, Txurixego→Txuixoo dela defendatzen dute. Izan ere, eremu honetan harri xehe txuriz beteriko harrobia daukagu eta herritik zuhaitz artean irekitzen den gune txuri gisa identifikatu daiteke, hortaz, berezkoa dirudi txurixego deitzea.

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.





Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

5. Ibilbidea:


Etxarri Aranazko Beheko Basotik burutuko den beste ibilbide bat, oraingo honetan, Epeie, Artxaan eta Bordabuu toponimoak ezagutzeko baliatuko dena. Irteera honek ez du inolako zailtasunik, laua izateaz gain, ondo markatutako xenda ederretatik mugituko baitira ikasleak. Hau horrela izanik, oraingo honetan talde ezberdinetako ikasleen arteko kooperazioa sustatuko dugu; hau da, talde guztiek besteen beharra edukiko dute eguneko helburua lortzeko eta soilik guztion arteko elkarlana bermatzean izango dira garaile. Bestalde, bost kilometro inguruko luzera duenez, nahi duenak oinez edota korrika egin dezake, beti ere, kontuan izanik, guztia amaitzeko gainontzekoen lana behar-beharrezkoa izango dela eta jarrera disruptiboak, lirainak eta keinu txarrak erabat debekatuta egongo direla; hau da, une orotan errespetuzko giroa mantendu beharko dela.

Kooperazioa sustatzeko, toponimo desberdinetan talde bakoitzari ibilbide honetatik gertu dagoen puntu bateko informazio ezberdin bat emango diogu, ondoren, behin talde guztiak toponimo guztietatik igaro direla ziurtatu eta gero, guztion planak amankomunean jarri beharko dituzte eta azken pistaraino gerturatu. Bertan, irakasle bat zain egongo da eta bere egitekoa izango da ikasle guztientzako otordua prestatzea. Beste batera esanda, talde bakoitzak “puzzle” bateko “pieza” ezberdinak izango ditu eta gainontzeko kideen “piezak” elkarturik, “puzlea” osatuz azken pista jasoko dute.

Eperia-Epeye: Teoria ziurrik ez dagoen arren, hedatuena dagoenaren arabera, epertokia adieraziko luke toponimoak; izan ere, bere osagaiak, eper + -tegi + -a direla defendatzen dute.

Artxaran-Artxan-Artxaan: Toponimo honen inguruan erakargarritasuna lortzea erraza suertatuko zaigu, izan ere, bere osagaiak (h)artz + (h)aran izanik, gure haranean hartzak egon zirela adierazten digu, hortaz, leku honen berezitasunak gogoratzeak ez die esfortzu handirik eskatuko gure ikasleei.

Bordaburu-Bordabuu: Leku izen honen osagaiak nahastezinak dira, borda + buru, hain zuzen ere. Bigarrenaren kasuan, muturra edo goikaldea adierazten du. Lehenengoari dagokionez, ordea, eremu honetan topa ditzakegun borda zahar eta ugariei egiten die erreferentzia.



Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

6. Ibilbidea:

Orain arteko ibilbideetatik erosoena litzateke Epele eta Osoin toponimoak ezagutzeko irteera hau; hortaz, soilik txirrindulaz egiteko aukera eskainiko diegu ikasleei, izan ere, patinekin egiteko lurzorua oso irregularra da. Hau horrela izanik, kontuan hartu beharreko lehenengo datua ikasle guztiek txirrindula eta burukoa erabiltzeko aukera daukatela ziurtatzea da. Era berean, ibilbidea burutu baino lehen Gorputz Hezkuntzako saioetan txirrindularitza saioak egingo ditugu, ikasle guztiek bi gurpilen gainean oreka mantentzen dutela ziurtatzeko eta oinarritzko segurtasun neurriak lantzeko. Behin arestian aipatutako guztia behatu eta gero, prest egongo ginateke ibilbidea burutzeko. Bestalde, ibilbidearen luzera finkatu gabe utzi dut amaieran denbora libre dezente edukitzea aurrekusi dudalako, hortaz, nahi izanez gero, luzatzeko aukera egongo delako. Hala eta guztiz ere, Ikastolatik Epele eta Osoinera joan etorriak bizpahiru kilometroko luzera du.

Ibilbidean zehar bi toponimoren izena adierazten duten harriak ikusiko ditugunez, hauetako bakoitzean geldialditxo bat egingo dugu eta hauen inguruan hausnartuko dugu. Bere ezaugarriak zeintzuk diren, osagaiak, adierazpenak, ea ezarritako izenak eta bere esanahiak lotura duten... honi esker, ikaskuntza esanguratsua lortzeko bidean egongo ginateke.

Behin bi toponimoetako informazioaz hitz egin eta gero, aukera asko izango genituzke; hala nola, Beheko Basotik txirrindulaz ibiltzea, bertako errekan eta belardietan jolastea... azken finean, hitz gutxitan, harreman osasuntsuak sustatuz eta jarduera fisikoa eginez, Amalurraz gozatzea.

Epele: Leku izen honek, seguruenik, osagai bakarra dauka, epel, alegia; izan ere, toki epela izanik, baliteke eremuari izena bertako giroak ezartzea.

Orosoain-Osoin: Jatorria azalatzeko bi teoria ezberdin eta zentzudun ditugunez, biak aurkeztuko dizkiegu ikasleei. Dena den, biek hala biek -gain atzizkia dutenez, argi dago eremu baten gainaldea adierazten duela. Lehenengoari dagokionez, oro + soin izan liteke, hau da, eremu guztia gainalde bat izatea; eta errealtatean hala da. Bigarrenak, ordea, eroso + gain dela defendatzen du; honek ere zentzua dauka, bertaratze eroso eta erraza daukan gaina delako.



7. Ibilbidea:

Ibilbide hau familien Ikastolarekiko atxikimendu sentimendua indartzeko probestuko dugu; izan ere, toponimo honen ezaugarriak eta kokapena kontuan harturik, egun berezi bat prestatuko dugu. Lehenik eta behin, nahi duten guztiekin Putterri mendira igoko gara, eta, gero, Lizarrustiko Parketxean bazkari bat antolatuko dugu. Dena den, ume txikiak egonez gero, Putterriraino igo beharrean, Lareoraino gerturatzeko aukera eskainiko diegu; hori bai, argi eta garbi utzi behar zaie bigarren hau ez dela Etxarri Aranazko toponimo bat, Ataungoa baizik. Izan ere, 8 kmko ibilbidea izanagatik ere, malda gogorregiak eta irteera teknikoegiak dira haur txikiekin egiteko, hortaz, esan bezala, egokiagoa da Lareoko paseotxoaren egitea.

Plan hau igande batean egingo dugu, ahalik eta jende gehien etortzeko asmoarekin; bestalde, Andra Mari Ikastola osatzen duten kide guztiei irekita dagoela azpimarratu nahiko nuke, hau da, ikasle, irakasle, langile zein familiako kide guztiei, hain zuzen ere. Dena den, guk, hots, antolatzaileok, lana bideratzeko, aldeztu aurretik egunaren berri emango diegu, ikasleek etxera ohar bat eramanez, baita Ikastolaren sare sozialetan ere. Bertan, eguna,

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.


ibilbidea eta beharrezkoa den informazio guztia eskainiko diegu; hau da, nora igoko garen, non hasi eta bukatuko den, gutxi gorabeherako ordutegia, bazkaria non izango den eta honen prezioa. Hala eta guztiz ere, familiek hautatuko dituzten aukera ezberdinak aurreikusi beharko ditugu. Alde batetik, herriz herriko autobus zerbitzua eta bazkaria ordainduko dituztenak; soilik bietako bat nahiagoko dutenak eta, azkenik, ibilbidea beraien kasa egingo dutenak, hau da, autobusa eta bazkaria hartzen ez dituztenak.

Arestian aipatutako guztiak aintzat harturik, lanak denborarekin egitea ezinbestekoa da, eta, horretarako, ikasgela bakoitzean ikasleek euren eta euren familien kideen izena emateko, egingo duten plana apuntatzeko eta zenbat partaide gerturatuko diren jakinarazteko orriak ipiniko ditugu. Ondoren, hauek bilduko ditugularik eta guztiak jaso eta gero zerbitzuak antolatuko ditugularik.

Autobus zerbitzuarekin hasteko, herriz herri igaroko da eta Lizarrustiko Parketxean utziko ditu adostutako orduan. Era honetan, Putterrira doazenak edota Lareora gerturatuko direnak puntu beretik hasiko dira; izan ere, aparkaleku zabala da eta bi ibilbideetako kideak biltzeko gaitasuna du. Bestalde, beraien kasa autoz zein txirrindulaz gerturatzen direnak ere Lizarrustiko aparkalekuan bilduko dira, Putterri hasierako tarte oso txikia baita kotxe asko aparkatzeko. Behin ibilbide bakoitzeko partaideak bilduz eta nor bere bidean jarri direlarik, ez dago galtzeko zailtasunik, sendari jarraitzea besterik ez baitago. Putterrira igoko direnen kasuan, ordea, igoera nahiko gogorra denez, erritmo ezberdinak errespetatzea ezinbestekoa izango da; era berean, gailurreraino iristean, tontor malkartsua eta estua daukanez, azken zatia hamarnaka egitea gomendatzen da. Berritri ere Lizarrustiko Parketxean biltzean, jatetxean bazkaltzeko aukera izango dugu; aldezt aurretik menua eta prezioa adostuz, azken orduan kontuak egiten ibiltzea ekiditeko.

Laburbilduz, asteburuko irteera honekin, jarduera fisikoa egiteaz gain, Putterri ezagutzeko aukera eskainiko zaie ez soilik ikasleei, baita euren senitarteei ere. Hori ez ezik, familiek Ikastolarekiko duten lotura eta atxikimendu sentimendua ere asko indartuko da.

Puttarri-Putterri: Leku izen honen osagaiak bu(i)tre+ (h)arri dira. Gaztelaniako "buitre" hegaztia adierazteko darabilgun "putre" izena da, hortaz, lehen osagaia. Hortaz, toponimoak putrearen harriari egingo lioke erreferentzia. Ikasleek barneratu beharreko bigarren datu garrantzitsu bat Putterri Etxarri Aranazko punturik garaiena dela litzateke. Hau horrela izanik, iruzkin honetako datuak lirarteke ikasleekin ikasgelan landu beharrekoak.



8. Ibilbidea:


Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolan hasi eta bukatuko den ibilbide hau guztiok elkarrekin oinez egingo dugu. Horretarako, DBHko ikasle nerabeen laguntzaz baliatuko gara, izan ere, bakoitzak LHko ikasle gazteago baten ardura hartuko du, bere kidearena, hain zuzen ere. Kidetza Andra Mari Ikastolan burutzen den jardura polit bat da, bertan, esan bezala, egun berezietarako ikasle helduagoek gazteagoen ardura hartzen dute, elkarren arteko harremanak sendotuz.

Ibilbidearen ezaugarriari eutsita, ez du inolako zailtasunik, ibilbidea laua izateaz gain, lurzoru aproposa baitu eta hiruzpalau kilometroko luzera duelako. Dena den, kontu handia izan beharko dugu errepidea zeharkatzerakoan, bitan gurutzatu beharko baitugu Etxarritik Arbizurantz doan NA-2410. Hau horrela izanik, ikasleek ulertu behar dute ezin dutela euren kidearen eskua inoiz ere ez askatu. Ibilbidearen amaiera aldera iritsiko gara Sobertara, bertan, zozketaz hautatuko den Lehen Hezkuntzako ikasle batek ikasgelan landutako toponimoaren informazioa eskainiko die gainontzeko kideei. Ondoren, irteera Andra Mari

Etxarrin mugituz, herria ezagutuz, toponimia zainduz.

Ikastolan amaituko denez, jarduera ezberdinak egiteko aukera izango genuke, hala nola, gainerako toponimoen erakusketa txiki bat, jarduera fisikoarekin lotutako jolasak edota euskal dantzak.

Soroberrieta-Soberta: Herritarron artean Soberta da erabiltzen den forma nagusia. Dena den, lehen osagaia soro, bigarrena berri eta hirugarrena -(e)ta tokia adierazten duen atzizkia izan daiteke, hortaz, soro berrien eremua litzateke. Hala eta guztiz ere, bigarren aukera bat aintzat harturik, baliteke osagaiak soro+berta izatea, herritik gertu dagoen eremua delako.



Etxarri-Aranazko mapa toponimikoa

Egilea: Jose Luis Erdozia Informatzaileak: Anbruxio Erdozia, Sebastian Miranda, Esteban Mundiñano, Pello Artieda, Jesus Razkin
Laguntzailea: Joakin Anso

